

# Karkara

*karkara.eus*

**Orioko eta Aiako aldizkaria** · 2017ko martxoaren 31a · 382 zenbakia



## Orioko *millenialak*

Umetan eta gazte garaian, ez zitzaien ezer falta izan.  
Heltzen joan ahala, krisiak kolpetik gordindu die errealitatea.

**3**  
**Puntua jarrita**  
Idoia Etxeberria

**12**  
**Elkarrizketa**  
Eñaut Guruzeaga

**17**  
**Moila Bazterretik**  
Eli Huegun

**20**  
**Argazki bilduma**  
Mendi lasterketak

**Kostera**  
Arraiak  
zure arrandegia

Astelehenetik larunbatera 09.30-13.30 Astiarie, asteazken eta ostegunetan 17.00-19.30

**EUSKO GUDARI, 4 943 133 580**

**cambo**  KIDS + STORE

**JANTZIAK • JOSTAILUAK • OSAGARRIAK**

Nagusia 4 • ZARAUTZ • 943 086 849  
www.cambo.es @camboarrandegia

 0-12 URTE

**IZARRA ELEKTROGAILUAK**

**ESKAINTZAK TELEBISTATAN**

**ERAKUSKETA ALDAKETA**

Eusko Gudari, 41 - Telf. 943 831 30 31 - 20810 Oriu (Ompoztekoa)

JARRI PUBLIZITATEA  
**KARKARAN**  
688859682

**Eki-lorea**  
belardenda

**Garbiñe Hernan**

- Naturopatia
- Iridologia
- Nutrizio zelurrara
- Aromaterapia
- Homeopatia

**Ana Isabel**

- Terapia naturalak
- Reflexologia
- Iridologia
- Sukaldaritza energetikoko irakasle
- Haurrentzako sukaldaritza naturala
- Dieta pertsonalizatuak

• Kirol masajea eta terapeutikoa

• Osteopatia

• Hipnosi klinikoa

**ESKAINTZA BEREZIAK**

- % 10ko\* deskontua pisua gaitzeko produktuetan

- Kosmetika naturala
- Erremedio naturalak
- Pisuaren kontrola; Dietista
- Naturistik; kontsulta asteazken eta ostinalak
- Elikadura ekologikoa, makrobiotikoa, zeliakoa...

Eusko Gudari, 5 - 20810 ORIO  
Telf. 943 831 377  
ekiloreabelardenda@gmail.com

**KAIUA**

Abenturazalea bazara...  
...ezagutu ezazu KAIUA berria!

Anibarko portua 35 behea ORIO  
Telf: 943 84 00 60



*Hasi bertsotan* atalean puntuka arituko dira bertsolariak. Oraingoan Ainhoa Mateosek bota du puntua *Amaitu dira danbor soinuak, badatoz inauteriak* puntuarekin. Hurrengoari Mariak Jarriko dio puntua.

# Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

**Kultur etxea**  
20810 Orió  
943 83 15 27

karkara@karkara.com  
www.karkara.com

**Editorea**  
Karkara taldea  
kultur elkarteak

**Erredaktore burua**  
Miriam Garcia

**Erredakzio taldea**  
Jon Agirresarobe  
Onintza Aiestaran  
Lore Berasaluze  
Iñigo Exposito  
Iñigo Gaiton  
Jon Garate  
Aiora Larrañaga  
Elizabete Manterola  
Intza Unanue  
Rikardo Uzquidun

**Publizitatea**  
Sonia Albizu

**Ale honetako kolaboratzaileak**

Jexux Mari Arriaran  
Idoia Etxeberria  
Eli Huhegun  
Iñaki Iturain

**Diseinua**  
Saioa Perona

**Banatzaileak**  
Ibon Berasaluze,  
iñigo Fernandez (Orió)  
Eli Irureta (Aia)

**Inprimategia**  
Gertu Koop. E. (Oñati)  
Lege gordailua SS-346/90  
ISSN 1132-1105  
Tirada 3.450 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berrieman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.

**TOKIKOM**



## LAGUNTZAILEAK



Aiako Udala



Orioko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

## PUNTUA JARRITA

**IDOIA ETXEBERRIA IKUTZA** (DOINUA: ARI NAIZELA, ARI NAIZELA)

### Korrikan bezalaxe bertsotan pasako det lekukoa,

euskaran alde horixe da guk in beharreko jokoak. Aitortu behar det enaizela korrikalari petoa, pozez jakin nun puntua zela jarraitu beharrekoa

Hamaika modu bada Euskarai bultzada bat emateko, neretzat ezinbesteko zerbait da egunerokorako. Etxen, kolean, eta nola ez herri kiroletarako, gehiegik ez du kalterik honen erabilpena tarteko.

Uda garaian festa jartzeko eztegu aukera txarra, bola, kubiko, errektangular... zuzena edo baldarra. Plazarik plaza Jasoz Herria, euskara ta harritzarra, gutxi gerala lan polit hontan daukat nik pena bakarra.



**Hurrengoari puntua: Zenbat alditan ikusi dezu gertutik herri kirola?**

Publizitatea kontratatzeko:  
**Karkara**  
688 859 682 (Sonia)  
publizitatea@karkara.com



karkara.eus

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



## Mila esker Ruandako eskoletako ikasle eta irakasleen partetik

Mila eta mila esker ematera natorkizue Giharako –Rwanda– eskoletako ikasle eta irakasleren partetik Orioko Herri Ikastolako Batzorde eta irakasleei, aurren, urtero bezala, Giharako eskolei laguntzeko konpromezua bete- tezagatik eta ikastolaren hezkuntza proiektuaren baitan Ruandako eskola pobreekiko ekintza solidarioei toki be- rezia eskaintzezagatik.

Eta mila eta mila esker, baita ere, DBH ko 4. Mailako ikasleei Gaboneta- ko tonbola bikaina antoaltzezagatik, bertan ateratako diru kopuru handi bat

## Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidali daitezke posta elek- tronikoz honako helbidera: karka- ra@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (Orioko edo Aiako Kultur Etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko ize- nik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argi- taratuko dugu; baina, beti, guk egi- lea nor den jakinda. Gutunean nor- bait aipatzen baldin bada eta nor- bait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARA bere egiten du eskutizak laburtzeko eskubidea.

Giharako eskoletako ikaskideekin konpartitzeagatik, horrela, ikasketa bukaerako bidaia eta solidaritza elkar uztartzen dituzuelako. Bejondeizuela!

■ **Demetrio Esnaola**

## ZORITXARRAK!

### Kartelak behar baino lehenago kentzeari

**K**artelak itsasteko panelak aste- lehenero garbituko zituela irag- garri zuen Udalak pasa den hi- lean. Eta ongi garbitu ere.

Beharrezko zerbitzua da kartelak kentzearena. Itsatsi behar izan dituen edonork badaki zer den panela aspal- dian pasatuko ekintzen kartekez beteta aurkitzea eta ezertarako tokirik ez iza- tea. Oraindik pasa ez diren ekitaldie- nak kentzea, aldiz, gehiegizkoa irudi- tzen zaigu.

Asteazkenean zerbait antolatu due- nak, adibidez, ezin du aurreko ostirale- tik iragarri, astelehenean kartelik gabe geratuko baita. Edo bi aste irauten di- tuen kanpaina bat egiten duenak bi al- diz itsatsi beharko ditu bereak.

Herritarrei panelak errespetatzea eskatzen zaien bezala, Udalari kartelak errespetatzea eskatzen diote herrita- rrek. Ilusio osoz antolatzen dituzten ekintzak lasai iragarri ditzaten.

## JAIOTAKOAK

- Uxue Ayucar Aizpurua, Orion, mar- txoaren 18an.
- Jakes Rodrigo Bengoetxea, Orion, martxoaren 17an.
- Sara Azkue Torres, Orion, martxoaren 13an.
- Haitz Unanue Ortega, Orion, otsaila- ren 25ean.
- Laia Casado Juliá, Orion, otsailaren 18an.
- Eki Jauregi Oneka, Orion, otsailaren 18an.
- Negu Muros Diaz, Orion, otsailaren 17an.
- Alejandro Iglesias Mateychuk, Orion, otsailaren 14an
- Eder Azkue Indo, Orion, otsailaren 11n.

## EZKONDUTAKOAK

- Mikel Xabier Rodrigo Peña eta Jaione Bengoetxea Pagora, Orion, otsailaren 24an.
- Miren Arantxa Iglesias Fernandez eta Angel Ramon Agüero Bedia, Orion, urta- rrilaren 28an.

Eskela edo urteurreneko gogoan- garria Karkaran jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:  
**943 83 15 27**

## HILDAKOAK

- Kruz Alberdi Arrillaga, Aian, martxo- ren 23an. 78 urte.
- Joxemari Gurrutxaga Etxezarreta, Orion, martxoaren 12an. 66 urte.
- Beatriz Salsamendi Salsamendi, Orion, martxoaren 6an. 87 urte.
- Jose Ramon Aizpurua Azkue, Aian, otsailaren 27an. 74 urte.
- Melchora Valdezate Valdezate, Orion, otsailaren 18an. 87 urte.
- Angel Pino Mateos, Orion, otsailaren 15ean. 51 urte.
- Jose Antonio Salsamendi Genova, Orion, otsailaren 14an. 79 urte.
- Margarita Eizagirre Ibarrola, Aian, otsailaren 13an. 83 urte.
- M<sup>a</sup> Pilar Zubizarreta Arruabarrena, Orion, otsailaren 13an. 87 urte.
- Javier Elustondo Galarraga, Aian, otsailaren 9an. 60 urte.
- Eleuteria Camio Izagirre, Orion, otsai- laren 9an. 94 urte.
- Joakin Arruti Lertxundi, Orion, otsai- laren 7an. 84 urte.
- Joxepa Iribar Mugika, Aian, otsailaren 7an. 91 urte.
- Pello Etxeberria Uranga, Orion, otsai- laren 5ean. 82 urte.
- Ana M<sup>a</sup> Lertxundi Arrillaga, Orion, otsailaren 2an. 81 urte.



Txalupa bat atera zuten hondartza garbiketean. KARKARA



Korrika eta bizikletaz joango da Kaanache Marokoraino. KARKARA



Parekidetasunaren aldeko jende katea egin zuten M8an. KARKARA

# Jantzi Ray Banak!

“Iniziatiba ederra, baina pena, ziklistekin egiten den bezala, jende katea egiteko autoei ka-leak itxi ez izana.”

**D**istira bereziarekin hasi dugu udaberria. Hondartzan OST eta Herrikoek txalupa nola lehorreratzen zuten begira egon bazinen, antzemango zenuen begietan ezohiko kilimatze bat. Ez da eguzkiak itsas azalean sortzen dituen txinpartengatik, ez eta landareen hautsagatik... Hoteleko paretek duten *brillua* da! Azkenean, zabaldu zen bezala, ez du Donald Trumpek erosi. Hotelarekin batera, barra handia ere bere egiteko aukera exijitzen zuen. Kuttuna omen du: bere hormatzarra diseinatzeko inspirazioa pizteaz gain, lebertu eta harriak Tijuana aldera eramateko asmoa zeukan hasiera batean. Egoskorra izaki, nork daki, agian bungalowetan hartuko du ostatu udan, parrilan egindako txerri txuleta batzuk jan eta gaiari buelta batzuk emateko. Munduko giza-kirik boteretsuena galtzontzillotan siesta egiten harrapatu nahi baduzu, badakizu, apuntatu udako lanpostuetan. Youtuben *pelotazoa* jotzeko aukera bikaina izan daiteke.

Gauza gehiago. Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, Jende-katea izan genuen hil hasieran. Iniziatiba ederra, baina pena, ziklisten karrerekin egiten den bezala, ekimena egiteko autoei kaleak itxi ez izana. Hurrengo. Arraun Elkarteko kontuak arraunlariak bezain sano daudela adierazi zuten batzarrean. Aipu berezia ere mendi lasterketetan korrika atera eta lokatzetan igeri bukatu zutenei. Zuen bai duatloia.

Korrika badator! Ia gehienoi luzetxo egingo zaigun kilometroa bezalako 2.600 egingo ditu Hossainek Marokoraino. Bidaia on!



# Erabilgarriak iruditzen al zaizkizu Aiako udalak jarri dituen baratzak?



“Nire zatia erdibana egin dut beste batekin”

Senarrak eta biok bi urte generamatzan balkoian tomateak eta horrelakoak landatzen eta beti izan dugu baratza edukitzeko ilusioa eta udal baratzak jarriko zituztela ikusi genuenean ideia bikaina iruditu zitzaigun. Hasieran ez zitzaigun tokatu baina beste batzuek ezezkoa eman zutenean guri eman ziguten.

Nire zatia erdibana egin dut zerrendan zegoen beste batekin, 140 metroko baratza gehitxo baitzen guretzat.

Orain martxan jartzea falta zaigu. Ongarria dagoeneko badut, orain, baratza txukundu eta ereiten hasteko garaia da. Gogotsu nago nik ereindakoa jasotzeko.

**Amaia Zuloaga**



“Baratza tokatu zaien guztiak ezagunak ditut”

oso ondo iruditzen zait udalak herritarren eskura baratzak jartzea. Jende asko lanik gabe dago eta denbora pasatzeko toki ona da baratza. Beste leku askotan bezala, hemen ere bazegoen beharra, eta pozik nago behar horri erantzuna eman zaio lako.

Baratza tokatu zaien guztiak ezagunak dira niretzat eta onena opa diet denei.

Guk geronek ere badugu baratza etxean eta niri asko gustatzen zait hara joatea. Nahiko handia da gurea eta lan asko egiten dugu senarrak eta biok. Familiarentzako izaten da ereiten dugun ia dena.

**Maria Luisa Azkue**



“Terrenorik ez dutenentzat aukera ona da”

Aukera ona iruditzen zait. Izan ere, badago jende konkretu bat lurra dituen eta baratza jartzeko aukera duena, baina badaude beste asko, herrian bizi direnak, terrenorik ez dutenak eta baratza gustura jarriko luketenak. Eta udalak aukera hori ematea ongi iruditzen zait

Kanposantu inguruan jarri dituztela entzun dut. Arazorik egon baliteke, agian, baratza horiek norenak diren ez jakiteagatik izan daiteke.

Ez dut izena eman duen inor ezagutzen baina jende mordo animatuko zela uste dut. Hiru baratza gutxi izan daitezke, baina hasteko ondo dago. Aurrerago, agian, jarriko dituzte gehiago.

**Amaia Garitano**

Herri baten bizimodua errezeta liburutan jasotzen da. Lagunarteko otorduak; etxe-ko jan ohiturak; baratza, ibaia eta itsasoa; jatetxeetako sukaldeak... ikasteko lekuak dira denak. Mahaiaren bueltan gauza asko egin daitezke. Interesgarrienak bi: jan eta berriketan egin. Goazen Orioko errezeta liburua idaztera.

# “Tolosan ez da babarruna beratzen jartzen”

## Jon Ander Arozena Insausti Babarrunak



### Osagaiak, zortzi lagunentzat

Kilo bat babarrun.  
Hiru litro ur, agian gehiago.  
Oliba olio txorrotada bat.  
Gatza.

### Garnizioak

Beasaingo odolkia.  
Ibarrako piperrak, langostinoak.  
Aza.  
Oliba olio txorrotada bat.

### Gomendatutako edaria:

Ardo beltza, kriantza

### Nola egin

Tolosako babarruna azal finekoa da, aurrez ez eduki beratzen. Ur hotzetan ipini kazuelan, eta zaindu markatutako proportzioak. Gehitu olio txorrotada bat eta su handian jarri irakin arte. Ondoren indarra jaitsi, suabe-suabe egin daitezten irakina galdu gabe. Babarruna ez desgitea da garrantzitsua: koilararik edo burrunzalaririk ez erabili, ontzia bera mugitu heldulekuak baliatuz. Hiru bat ordu beharko ditu. Gatza azken ordu laurdenean bota behar zaio, hasieran botata ez du babarrunak ura ondo hartuko. Aparte egosi odolkia eta aza olio txorrotada batekin.

## JON AGIRRESAROBÉ

Belauntzan jaioa, Tolosan hazia. Ekainean hamasei urte egingo ditu Orion. 2001. urtean etorri ziren Lierni Letamendia emaztea eta biak, *Erriberan* etxeak egiten ari ziren garaian. Jon Anderren *tarta manzana* ezaguna da herrian, etxe eta soziedade askotara iritsi da postrea opari. Guk Tolosako babarrunak egiten erakusteko eskatu diogu.

### Sukaldaria zara ofizioz.

Etxetik datorkit. Amonak taberna zuen Ikaztegieta eta umetatik sukaldari lanetan ezagutu dut ama. *Eskolapiotan* ikasi nuen Tolosan; hamasei urterekin jatetxe batean hasi nintzen laguntzaile, Oñatiko Etxe-Haundin. Pisan bizi nintzen lau lagunekin. Esperientzia ederra izan zen, han hasi nintzen postreak egiten ikasten.

### Jatetxe ezagunetan egin duzu lan. Ofizio gogorra zuena.

Zumaiako Abegi- Lekun lan egin nuen urtebetez, Donostian Urbanon sei, Hotel Castillon ere mordoxka. Ordizian taberna ere izan nuen. Ostalaritzan jende asko ezagutzen duzu, hori da ederrena. Ezkondu eta umea izan genuenean familiaz gozatu nahi nuen, beraiekin egoteko aukera izan. Ostala-

ritzako ordutegiekin korrontearen kontra zoaz: etxe-koek eta lagunek jai dutenean duzu lan gehien, eta zure jai egunean eskolan edo lanean ari dira denak.

### Jatetxeak utzi dituzu, baina sukaldaritza ez.

Sukaldea gustatzen zait, ez nuen utzi nahi. Beste lan mota bat probatzeko aukera izan nuen Iruñean, zazpi urte egin nituen *Casa Misericordia* zaharretxean: adinekoentzat 550 bazkari eta afari ematen genituen egunero. Orain antzeko lana egiten dut Ottis-Zardoya enpresan, berrogei langile asetzea da nire lana. Eskolan edo enpresa batean sukaldari aritzea esker onekoa da, jendea gertuko sentitzen duzu. Jatetxean exigenteagoa da: ostatu batera joaten garenean inoizko ondoen jan nahi izaten dugu, eta hori asko eskatzea da. Esaterako, sagardotegi batera joan eta aurreko txuleta-oren oroitzapena daukagu, eta ahal dela azkena baino hobea nahi dugu.

### Geroz eta gutxiago gabilta jatetxeetan, eta exigenteak gara. Sinatzen al duzu baieztapena?

Gogoan dut duela urte mordoxka esaten zela Frantziako edo





Tolosatik Oriora etorrita parrilan ikasi du Jon Anderrek, Bisigu Festan ere esku lanean aritzen da urtero. KARKARA

“Tolosa zerbitzu aldetik osatuagoa da, baina Orion bizitza kalitate oso ona daukagu, herri txikia da baina konpletoa”

“Eskola edo enpresa batean sukaldean aritzea esker onekoa da, jatetxean exigenteagoa da”

Europako ohiturak indartuko zirela gurean. Hala gertatu da, konturatu gabe etorri da. Lehen kalean ibiltzen ginen, tabernan eta jatetxean ibiltzeko kultura zegoen. Asko galdu da. Orion mugimendu pixka bat ikusten dut, bizi poza. Adibide bat: asko antzematen da arrantzaleak etxean daudenean, larunbat eguerdian edo ostiral iluntzean.


Bestalde, gremioan geroz eta profesional gutxiago daude. Gaur egun ostalaritzan lanean ari den jende asko ez da urte luzetan aritua, beste ofizio batzuetatik dator. Zurito bat edo kafe bat ateratzerakoan antzematen da hori.

#### **Tolosa eta Orio. Alde handia al dago?**

Tolosa handiagoa da, zerbitzu aldetik osatuago dago. Baina Orion bizitza kalitate oso ona daukagu, herri txikia da baina konpletoa: dena pauso batera dago, kalean ibiltzeko lasaitasuna, kirol aukera asko, itsasoa eta mendia bertan... Umeak ditugunok ondo dakigu hori. Esaterako, uda-udako egunak tristeak izaten dira barrualdean, Tolosaldeko eta Goierriko jendea kostara etortzen da.

#### **Aurreko alean Bixente Lasak harrera herri ona garela aipatu zigun. Hamasei urte eta gero, iritzi berekoa al zara?**

Aitortuko dizuet hasieran kosta zitzaigula. Arrantzak lagundu zidan: ostiral arratsalde-iluntzeak *barran* egiten nituen kainabera hartuta, hiltun samarra naizenez pasarakoekin berriketan aritzen nintzen. Orduan ez genuen umerik eta bizi gutxiago egiten nuen Orion, aste barruan lan eta asteburuetan Tolosara joaten ginen. Unax semea jai zenean erraztu zen sozializazioa: bost hilabete zituenean ireki zuten haurreskola, gure semearen adinkideek eta gurasook estreinatu genuen. Parkean jendea ezagutzen joan ginen. Gaur egun gustura gaude Orion, lagun onak ditugu. Azken batean, onerako edo txarrerako, denak ezagutzen gara.



**mauka**

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL: 943 572 083  
FAX: 943 571 190  
lasenjo@hotmail.es

INES ASENJO  
ABESLARI, 1  
20810 ORJO



**AIRDATZA modas**

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORJO

HAUR ETA HELDUENTZAKO JANTZIAK



**ROSA**

GARBINE ARRILLAGA  
ARRITZAGA KALEA, 2 - TEL. 943 13 19 43

10% DESKONTUA FAMILIA UGARIENTZAKO

*Garbine Arregi*

*Moda eta osagarriak*

*Herriko plaza, 5*  
**635 706 265**

*preziosotasun goizoz zabaltzeko!*

emakume arropa - neurri bereziak  
kinkiladenda - barruko arropa



**argine**

35eko deskontua familia ugarien txartelarekin

Eusko Gudari, 9 - Orjo  
**943 134 889** argine/jantziak



**Zaragueta Herri Eskola Orjo**

telefonoa: 943 89 40 52  
e-mail: 012137aa@hezakuntza.net

*Lizaso dekorazioa*



**Tf: 943 83 07 84**

**Faxa: 943 24 87 18**

**Eusko Gudari, 48**

obrak  
proiektuak  
errehabilitazioak  
txostenak  
eraikuntza zerbitzuak  
ITEak  
erakinen mantenua



**XS**

arkitektura

borja agirresarobe lopetegi  
herriko-barra 6, behea  
20800 zarautz

6 3 5 7 3 1 7 2 2  
9 4 3 1 3 4 3 5 8  
xs@xsarkitektura.com



**Sagasti LEIHOAK**

ROBERTO SAGASTI

Tel. 943 13 00 77 - Fax. 943 53 71 50  
sagasti@sagastileihoak.com  
Arrantzale kalea, 65  
20810 ORJO (Gipuzkoa)

**PERTSIANAK**

A K O M A Z



Aluminio, PVC  
Venezianak  
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

**LUXARBE**  
*igeltseritza*

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnoa: 943 83 59 00

**MENDIZABAL AROZTEGIA**

*Neurriko armariek eta egurrenak*

943 831 175  
645 708 491  
mend@aroztegi.net

Altxerri bidea  
8erri-Aizal etxea  
20810 Aizal-Orjo

**JON ANDER MAIZA AROZTEGIA**



**LEIHO ISOLATZAILEAK  
PVC - ALUMINIOA**

**690 99 39 32 / 943 30 07 88**

ventanasmaiza@gmail.com  
www.carpinteriamaiza.com  
Antxiola kalea 19, 1º C 20810 ORJO

**ZINKU**

Igeltseritza orokorra  
Eusko egoitza mola guztiak  
labreak, batri gelak, igeltseria...

Ander Zinkunegui  
**667 740 279**

# Adinduak, aukeratzea eta maiatzaren 7a



Jexux Mari Arriaran Elkorbarrutia

**Niri ez zidaten galdetu monarkia edo errepublika nahi nuen, beste batzuk erabaki zuten nire partez**

**N**iri ez zidaten galdetu monarkia edo errepublika nahi nuen, beste batzuk erabaki zuten nire partez. Erabakia *lotua eta ondo lotua* zegoela begi-bistakoa da; gainera, garbi geratu da hitz horiek indar handia zutela eta dutela, egun. Afrikako elefanteak ere horren jakitun dira.

Adinean aurrera goaz denok eta iritsiko gara hirurogei urtetik gorako garaietara. Gaur egungo pentsionistek eta erretiroa hartuko dutenek pentsio duinak behar dituzte kalitatezko bizimodua izateko. Azken urteetan, Espainian pentsioak %0,25 igo dira, praktikan jaitsiera dena. Beraz, gauden estatuan ez da lortu duintasun hori eta ez dirudi lortuko denik.

Adibide garbia 2015eko abenduaren 22an Gasteizeko Legebiltzarrean gertatu zena da. *Pentsionistak Martxan* elkarteak 10.000 sinaduratik gora aurkeztu zituen pentsiodunek hilean gutxieneko pentsioa 1.080 euro izateko asmoz. Legebiltzarrak eskaera ezin izan zuen bideratu Madrileko gobernuaren eskumena zelako.

Urtebete beranduago, emaitzak 2017ko otsailaren lehen argitaratu dira, 5.000tik gora bazkide dituen Ekonomisten Euskal Elkargoko 506 ekonomistei –%10– egin zaien inkestan %57,1ek bideragarria ikusten dute Pentsio Publikoen Euskal Sistema.

Jakina da Espainiako Gobernuak Lege maila duen Gernikako Estatutua ez duela bete azken 30 urteotan. Jakina da, baita ere, Katalunian loteslea ez zen galdeketan prestatzeagatik bertako agintariei kartzela zigorrak eskatu zaizkiela. Horrenbestez, garbi dago legeen neurgailua Madrilen eskuetan dagoela eta nahieran erabiltzen duela.

Horrelakorik ez gertatzeko eta etorkizuna gure eskuetan izateko, oso garrantzitsua da maiatzaren 7ko herri-galdeketa parte hartzea. Zure senideen eta hurbilekoen, gure lagunaren eta gertuko bizi kalitatea eta etorkizuna erabakitzeke ezinbestekoa dugu informatzea eta aukeratzea. Beraz, artikuluan agertzen den informazioa pasatu zure inguruko nagusiei, guraso zein aiton-amonei, eta erabaki dezatela.

Maiatzaren 7an, zure etorkizunaz erabakitzeke parte hartuko duzulakoan, Jexux Mari.



Elizabete Manterola

## Festara

**U**daberriarekin batera iritsi zaigu oso maitea dugun festa. Egia esan, ez dakit ondo festa deitu edo ospakizuna, ekitaldia, kirol proba... Dagoeneko hasia da Euskal Herria alderik alde zeharkatzen. Bildu dira lasterka ume eta helduak, kanpotar eta bertakoak, kirolari peto eta alperzorriak. Ikusiko ditugu bateko eta besteko irudiak telebistan: milaka herritar bilduko ditu leku batzuetan; banaka batzuk besterik ez, beste batzuetan. Baina beti martxan, gelditu gabe, gau eta egun, ilusioz gainezka. Eta behin baino gehiagotan galdetuko diogu gure buruari hamar egun hauetan: non ote dabil orain Korrika? Zenbat pertsona ariko ote da saltaka goizeko 4retan astegun buruzuri batean Trebiñutik Bernedora?

Ezin esan ordu eta egunik onenean pasako denik guretik aurtengoan: asteartetik asteazkenerako ordu txikitan. Banaka batzuk hartuko dute lekukoa Mapil aldean, eta lekukoa eskuz esku pasata bilduko da jende gehiago ere herrira gerturatu ahala. Herriko kaleetan barrena dabilela irtengo da jendea leihotara txalo egitera, eta maindire artean harrapatuko ditu lotienak. Zarrutzerako bidea hartuko du segidan, eta pixkanaka jendeak erretiratu egin behar, ezin aldapa gora Korrikaren martxa segi. Baina hantxe joango dira korrikalari trebeenak furgonetaren atzetik, jai giroan eta kantuan: *tipi-tapa tipi-tapa, korrika!*



# “Tentsio handikoa da bi alderdien arteko harremana”

## Eñaut Guruzeaga

Aiako EH Bilduko zerrenda-burua

Politika instituzioetatik harago doala pentsatzen du Eñaut Guruzeaga Aiako EH Bilduren zerrenda-buruak. Gizarte eta herri-mugimenduetan sarri aritu da bera eta, horregatik, politikan beti jardun eta egongo dela dio. Lehen esperientzia du Udalean, eta arlo horretan Aiari zer eskainia baduela uste du.

**TESTUA: M. GARCIA ETXEBERRIA**

**ARGAZKIAK: KARKARA**

Lehen legealdia du Eñaut Guruzeagak –Aia, 1989– Aiako udalean, baina denbora gehiago darama EH Bilduko taldean. Udalean dauden bi alderdien arteko tentsioa handia dela dio, baina, oztopoak oztopo, oposizio eraikitzailea egitea da Guruzeagaren nahia.

### Zergatik politikan?

Uste dut ahal den neurrian denok hartu beharko genukeela parte, kontua da politika politikariek in erlazionatzen dela. Nik ikuspegi zabalagoa daukat: badaude sindikatuak, eragile sozialak... Sare, presoen eskubideen aldeko plataforma, adibidez, mugimendu politiko bat da, baita Gure Esku Dago mugimendua ere. Ikuspuntu horretatik begiratuta beti egon naiz politikan eta beti egongo naiz.

### Eta zergatik udal politika?

EH Bilduko taldean nengoen aurreko legealdian, ez zinegotzi moduan, lan taldeko kide gisa baizik. Eta zerrenda berria osatzeko garaia iritsi zenean prozesu bat ireki genuen ze-

rendaburua aukeratzeko. Ni aukeratu ninduten eta nire erantzuna baiezkoa izan zen, arlo horretan zer eskainia bazuena pentsatu nuen.

### 2015eko hauteskundeetako emaitzak ez ziren aurrekoak bezain onak izan. Zergatik uste duzu izan zela hori?

Argi dago faktore komun bat egon zela Gipuzkoa osoan EH Bilduri botoak kendu zizkiona, desgasteagatik edo. Diputazioan gobernuan izan ginen, eta beste herri askotan ere bai, eta hor desgaste bat egon zen.

Hortaz aparte, EH Bilduk bazuen alternatiba bat eta guk horretan sinesten genuen, baina beharbada ez genuen jakin hori komunikatzen, herriari behar bezala helarazten.

### Zure lehen legealdia da, nolako esperientzia ari zara izaten?

Esperientzia pertsonal gisa oso aberasgarria ari da izaten. Uste onena baino gehiago ari naiz ikasten. Hauteskunde aurretik egindako elkarrizketan esan nuen jakin nahi zuela udal honek barrutik nola funtzionatzen zuen, eta ari naiz



hori ezagutzen.

**Aurtengo aurrekontuak aho batez onartu dituzue. Antze-  
man al duzue gobernuan parte-hartzeko giro hobea?**

Bai aurrekontuei eta bai ordenantza fiskalei dagokionez egungo alkatearen jarrera askoz irekiagoa da oposizioarekiko. Horren aurrean, guk aukera izan dugu oposizio eraikitzaileagoa egiteko eta horretan EH Bilduk pausu bat eman duela iruditzen zait.

**Zuek egindako hainbat proposamen onartu dituzte aurtengo aurrekontuetan.**

Bai. Guk frogatu dugu parte-hartzeko aukera ematen zaigunean prest gaudela oposizio eraikitzaile bat egiteko. Hauteskunde kanpainan herritarrekin egindako batzarretan jasotako proposamenak helarazi ditugu, gehienbat. Irisgarritasunaren arloari, adibidez, garrantzia ematen ari gara. Auzoen inguruan ere saiatu gara aurrekontuetako inbertsioak modu orekatu batean banatzen. Andatzako elkarteko obrak, Santioko haur parkea eta Urdanetako parkinga, adibidez, gure eskaerak izan dira eta pozik gaude EAJk horiek onartu dituelako.

**Nolakoa da bi alderdien arteko harremana?**

Tentsio handiko harremana da. Iruditzen zait EAJri ez zaio-  
la gustatzen EH Bilduren oposizioa egiteko modua. Legealdi honetan, aurrekoarekin konparatuta, pausu handiak eman ditugu eta gai gara modu teknikoago batean jorratzen diren gaiak eztabaidatzeko. Eta nik uste dut EAJk arrisku edo arazo bat ikusten duela hor: nahiago dute gu hona etorri eta esaten duten guztiari amen egitea. Baina hori ez da gure lana.

**Nolakoa da auzoekiko harremana? Nola uste duzu egin behar dela lan?**

Hauteskunde kanpainan proposatzen genuenari eutsiko nioke. Udal gobernuak erregularatasun bat mantendu behar du auzoetara hurbiltzerako garaian. Hiru hilabetetik behin auzo bakoitzean batzarra egitea proposatzen genuen, adibidez. Horrez gain, beste kanal batzuk ere aprobeztatu daitezke: interneteko foroak eta buzoiak jar daitezke, adibidez, herritarrek parte hartu dezaten.

**Herri zabala izanik, nola ikusten duzu irisgarritasuna Aian?**

Azken aldian kexak jaso ditugu garraio publikoaren inguruan, eta gaia lantzeko parte-hartze prozesu bat martxan jartzeko asmoa dugu. Izan ere, buelta batzuk ematea behar duela uste dut. Azken urteetan zerbitzua asko hobetu dela uste dut, baina oraindik hobekuntza gehiago egin behar dira.

**Aurten -2017ko aurrekontuen arabera- inbertsio garrantzitsuak egingo dira auzoetan.**

EH Bilduren lana auzo bakoitzetik eskaera bat hartu eta udal gobernuari helaraztea izan da. Lehen aipatu dizkizudanak egingo dira: Andatzako elkartea, Santioko parkea eta Urdanetako parkinga -nahiz eta udal gobernu nahiko ezkor dagoen gai horrekin, lortu dugu behintzat aurrekontuetan tokia egitea eta ikerketa bat egingo da aparkalekua egin daiteken edo ez ikusteko-. Aurrekontuetan onartu dira, eta adi egongo gara aurrera eramaten diren edo ez ikusteko.

**Eskola berria egingo eta martxan dago. Zer balorazio egiten duzue?**

Oso pozik gaude. Irakasle eta gurasoen eskaera zen umeak



“Ameztiko eraikinaren gaia-  
rekin gobernu kudeaketa  
erabat arduragabea egiten  
ari dela uste dut.”





eraikin berean egotea eta EH Bilduk beti egin du horren alde. Egia da, baita ere, keaxa ari garela jasotzen. Akats asko dauzka eskolak eta egokitzapenak egin behar dira.

### **Bere garaian kritikak izan ziren eskola berriaren proiektuaren inguruan.**

Gure aldetik kritika nagusia prozesuan parte-hartzeko aukerarik eman ez zutela izan zen. Gurasoen aldetik ere kexa horiek jaso genituen, Udala gurasoengana gerturatu zenean proiektua osatuta zegoen ordurako, eta ez zuten aukerarik izan beren ekarpenak egiteko. Nire ustez, herritarren aurreko aurkezpen hura gobernuaren aurpegi garbiketa bat izan zen.

### **Ameztiko eraikinaren inguruan zalaparta handia sortu da. Nola dago gaia?**

Momentu honetan arlo penalean dago gaia, probintzia auzitegiaren erabakiaren zain. Hor erabakiko da arlo penaletik jarraitu behar duen edo administrazioarekiko auzien epaitegira bideratuko den. Momentu honetan penaletik aztertzen ari dena da ia ustezko prebarikazio edo lurralde antolaketaren aurkako deliturik egon litekeen. Horrez gain, duela gutxi jakin dugu Gipuzkoako Aire-kirolen Federazioak bigarren salaketa bat jarri duela arlo penaletik egin berri duten parkingagatik.

### **Zein da zuen jarrera gai honen inguruan?**

Gure jarrera hasieratik dena gelditzea izan zen. Ikusten genuen, administrazioarekiko auzien epaitegian jarraituko balu eta epaile batek erabakiko balu baimen hori ez dagoela

ondo emanda eta etxe hori bota egin behar dela, sekulako kostua izango litzakeela Aiako udalarentzat. Eta hori ezin dugu onartu, herritarrek ezin dute hori ordaindu.

Udal gobernuak esaten du EH Bilduk baimena babestu zuela, baina ez da egia. Gobernu batzordetan lizentzia eskaerak mahai gainean jartzen dira eta teknikariak ondo dagoen baieztatzen du; guk horren aurrean orain arte konfiantza erakutsi dugu teknikariengan, baina inoiz ez zaio EH Bilduri iritzia eskatu. Eta udal gobernuak zinegotzien isiltasuna baiezeko bezala ulertzen zuen.

### **Nola baloratzen duzu udal gobernuaren inguruan egiten ari den kudeaketa?**

Gobernu kudeaketa erabat arduragabea egiten ari dela uste dut. Alkateari udalbatzar batean galdetu genion ia lur horietan eraikitzerik badagoen eta berak ez dizut erantzunik emango esan zuen. Nik uste dut hor agerian geratzen dela bere ezgaitasuna. Oso larria iruditzen zait.

Informazioa ezkutatu dute, baliogabeko txostenak eman dituzte... eta gainera azken batzordean esan zitzaigun gaiari buruzko erabilera politikorik ez egiteko. Horrek zer esan nahi du, isilik egon behar dugula? Bada, guk ez daukagu ezer ezkutatzeko, eta gaiari buruz hitz egiten jarraituko dugu, beste gauzatzat hitz egiten dugun bezala.

### **Kooperatibaren gaiarekin ere badira tirabirak, eraikinaren trukearekin ez direla prozedura egokiak jarraitu salatzen duzue?**

Guk kooperatibarekin ez daukagu arazorik, gobernuarekin ditugu. Udal gobernuak EH Bildu kooperatibaren kontra dagoela esaten du arreta desbideratzeko. Ondasun publiko bat beste batengatik trukatzeari kasu honetan, eskola azpiko lokalak plazako eraikinarekin trukatu dira legez onartuta dago. Baina, bigarren pausu batean, Udalak truketik lortutako etxe hori Murias enpresari eman dio ordainketa modura, eta hori da Udala erantzuten ausartzen ez den galdera: operazio hori babesten duen legerik badagoen edo ez.

Guk, zalantza horiek ikusita, galderak sartu genituen udalean, idatzizko erantzun bat eskatuz. Udala, berez, behartuta dago hilabete bateko epean erantzuna ematera, baina alkatetateko uko egiten zion erantzun hori emateari. Hiru hilabete atzetik egon ondoren, dokumentu bat eman ziguten galderei ihes eginez.

Hori guztiaz gain, tasazio edo balorazio teknikoak eskatu dugu eta, gaur, oraindik ez dugu jaso profesional batek sinatutako balorazio teknikorik. Bakoitzak atera beharko ditu bere ondorioak, baina guretzako esanguratsua da operazio hori bukatu eta gero Udalak arau subsidiarioak aldatzea gantzetan etxebizitzak egiteko. Izan ere, horrek Murias etxebizitza gehiago egiteko aukera ematen dio eta plazako eraikinak balioa irabazi du.

### **Epaitegietara eraman duzue gaia, zuk zeuk ere salaketa jarri duzu pertsonalki.**

Bide ezberdinak aztertu genituen, lehenbizi nik herritar gisa epaitegira jo nuen eta gero, taldean, nahiko arrazoi bazegoela ikusita, informazio guztia helarazi genuen fiskaltzara eta Herri Kontuen Euskal Epaitegira. Erantzunaren zain gaude orain.

# azkue

## karrozeria



Ubegun industrialdea, 7  
20809 Aia-Orio  
Tf/fax: 943 83 51 86  
carroceriasazkue@hotmail.com

**GARMENDIA**  
HIEZIN AGENTZIA - AHOLKULARITZA - ASEGURUAK

Ibai Ondo, 1  
Tel.: 943 834 466 - Fax: 943 132 941  
informacion@garmendiagestion.com

**Joana Murgiondo**  
Aseguru-agenzia

ASEGURUAK

C C I  
CARASA, CILVESTI, LACORT E CIA, S.A.

Abeslari, 4- 2. esk.  
Tfnoa: 943 13 46 07

**Seguros Bilbao**

Tel: 943 111 600  
688 714 869

Santi Barranco  
Orioko ordezkaria  
e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com

**azkue**

Tf: 943 130 438

**azkue**

**urbide**  
iturginak s.l.

Iturgintza - Berogintza

Birkata Kalea, 4  
20800 Zarautz  
943 890 069  
urbideiturginak@gmail.com  
www.urbide.es

**URANGA**  
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskaInet.net  
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

Imanol Illarramendi  
Aia (Gipuzkoa)

**KORTABERRI**  
arotz lanak

kortaberri.arotza@hotmail.com 665 70 33 47

**Alustiza Autobusak**  
Alustiza Bidaiak S.L.

Autobus litera eta  
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.  
Bidalatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93 / 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01 / 656 78 29 99

**TAILER MEKANIKOA AUTO LAN**

Pelotari 5, Orio  
943 83 00 34

Zure Konfidantzazko  
**Gertuko Tailerra**

**ANOBGA TXIBI S.L**  
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak - beira bikoitza
- segurtasun beirak - dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak - barandak - kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

**IGLESIAS**  
SARRILAGILEAK

24 OREKO ZERBITZUA

Javier Iglesias Fernández  
637 723 308  
iglesiascarrajaeros@yahoo.es  
ZOBIO ORIO

- ATEAK INKOTZEN DITUGU
- SARRAILA - ZILINDRO ALDAKETAK
- ATEAK IXTEKO MALDURIEN ALDAKETA
- KOMUNITATERENTZAKO ZERBITZUA

# Behin betiko



Eli Huegun

**Azken aldian ETAk adierazpen garrantzitsuren bat egin duen ia gehienetan, esango nuke hurrengo KARKARAN idazteko txanda hartua neukala.**

Azken aldian ETAk adierazpen garrantzitsuren bat egin duen ia gehienetan, esango nuke hurrengo KARKARAN idazteko txanda hartua neukala. Zuek ez zarete gogoratuko, baina ni bai. Badirudi apropos egin dudala. Baina tira, esanak esan eta izanak izan, armagabetzea iragarri ostekoa ere niri tokatzen zait eta hemen nator, inork baino arrazoi handiagoa izateko asmorik gabe, egin dudan gogoeta zuekin konpartitzera.

Apirilaren 8a, hori da ETAREN behin betiko armagabetzerako data, su-etena iragarri eta 5 urte eta erdira. Franco hil eta ia 42 urtera.

Indarkeriari lotutako une asko ditut gogoan, oso umea izan arren itsatsita geratu zitzaizkidanak. Lehen oroitzapena, Ortega Lararen bahiketa, albistegian egunero aktualizatzen zuten zenbakia dut: 167 egun bahituta, 234, 305, 399, 465, 510... azkenean, 532. Hurrengo oroitzapena, Beasainen trafikoa zuzentzen ari zirela tiroz eraildako bi ertzainak, Ana Isabel Arostegi eta Francisco Javier Mijangos. Ondo gogoan dut non eta norekin nengoen. Garai beretsu hartan, frontoi ertzeko horman Unai Romanoren argazkiak jarri zituzten,

lehen eta orain. Handik gutxira, Juan Priederen hilketa. Arratsalde hartan soinketa geneukan eta sofbol zelaian geunden Ertzaintzaren helikopteroak pasatzen ikusi genituenean. Etxera bazkaltzera joandakoak bueltan etortzen hasi zirenean jakin genuen zer gertatu zen. 2003ko otsailaren 8an dantza emanaldia geneukan kiroldegian eta amarekin abarkak erosten ari nintzela, irratan esan zuten Joseba Pagazaurtundua hil zutela, Andoainen. Handik 12 egunetara itxi zuten Egunkaria, nik 12 urte bete nituen egun berean.

2003. urtean, 12 urte eskasekin horrelako momentuak buuruan grabatuta edukitzea normalizatu egin dugu. 14 urte beranduago oraindik ere gogoan ditut. Hala tokatu zaigu esan ahal izango du bateren batek, baina horrelako gauzak tokatzen ez direlakoan nago, tokarazi egiten direla.

Armagabetzea 2017an gertatuko da, norberak jakingo du zein duen honetara eraman gaituen ipinitako hondar alea. Hondar alea edo harria, kasuan kasu. Ez dago inor parte hartzera behartuta. Beno, agian bada egon beharko lukeen norbait, baina interes handirik ere ez du erakutsi. Nahi ez duenak ez dezala parte hartu, baina mesedez, oztoporik ere ez dezala jarri. Ez dugu merezi.



# Iristear da Korrika

Apirilaren 5ean 00:42an iritsiko da Korrika Oriora eta 1:31n utziko du Aia. **Apirilaren 4an ospatuko da Korrika eguna.** Korrika txikia, triki-potea eta afariak alaituko dituzte testiguaren etorrera aurreko.

TESTUA: M. GARCIA ETXEBERRIA

ARGAZKIAK: KARKARA

A tzo, martxoaren 30ean, irten zen hogeigarren Korrika Otxandiotik. 1.343 kilometro egin ondoren, apirilaren 5a iritsi berritan helduko da testigua Oriora. Aginagatik iritsiko dira lasterkariak eta Orio herrira sartuko da, handik bira egin eta, Aiako lurretatik barrena, Zarautz aldera abiatuko da.

## BatZuk

BatZuk da aurtengo Korrikako leloa, hizkuntza indartzeko, norberak ere bat egin dezakeela gogoratzeko: *Hizkuntza, Kultura, Mundu BAT sendotzeko bidean, ZUK ere bat egin dezakezu, zeuretik, zeure hizkuntza-aberastasuna eta kultur aniztasun unibertsala bizi ditzazun.*

Zirkorrika abestia izango da 20. Korrikako furgonetako bozgorailuetatik lasterkariak girotuko dituena. Xabier Zaballak sortu du eta doinu balkanikoak dakartza gogora.

## Airilaren 4a, Korrika eguna

Martxoan osoan zehar Korrika Kulturalaren ekitaldiak izan ditugu herrian. Rakugo ipuin japoniarrekin hasi genuen hila eta Kuestazio eguna, Iñaki Perurenaren hitzaldia, Herriarte-ko Txapelketako bertso saioa eta Pier Paul Berzaitzen kontzertua izan genituen ondoren. Apirilaren 1erako, larunbaterako, Euskaraokea antolatu du Txurumuskik.

Apirilaren 4a Korrika eguna izango da Orion eta Korrika Txikiarekin emango zaio hasiera. 14:45ean irtengo dira Aita Lertxundi kaletik eta 3.415 metro egingo dituzte guztira Ikastolako eta Zaraguetako maila guztietako ikasleek, testigua el-




karri pasatuz.

Iluntzean, Korrika iritsi aurreko orduak alaitzeko, triki-potea eta afaria antolatu ditu Korrika batzordeak. 19:00etan hasiko da poteoa plazan eta herrian kalez kale ibiliko da afalordura arte. Afaria 20:30ean hasiko da, Balea elkartean. Txartelen prezioa 12 eurokoa da eta iganderarte –apirilak 2– daude salgai Kultur Etxean eta Kolon Txikin.

## Iruñeara irteera

Otxandion hasi eta Iruñean bukatuko da aurtengo Korrika. Apirilaren 9an, 12:30 aldera iritsiko da testigua helmugara, eta ekitaldi jendetsua egingo dute gero. Amaiera ekitaldian parte hartu nahi dutenentzat autobusak antolatu ditu Urola Kostako AEKk. Iruñera autobusean joan nahi dutenek izena eman dezakete Orioko AEK Euskaltegian eta Kolon Txiki tabernan



**Ordu txikitan korrika**

Apirilaren 5ean egingo diogu ongi-etorria Korrikari, ordu txikit. 00:42ak inguruan pasako dela aurreikusi dute antolatzaileek. Aginagatik iritsiko da eta Orain plataformako kideek hartuko diote testigua usurbildarrei. Zarautz aldera joko du gero; Xuaiko aldapa igotzea tokatuko zaie Orio AEko arraunlariei beste behin ere. Lekukoa eskuz esku pasaz, atsedetik gabe, jarraituko du Korrikak apirilaren 9a arte. Iruñeako kaleetan zehar egingo ditu 20. edizioak azken kilometroak.



Km	Eragilea	Km	Eragilea
1343	Orain plataforma	1348	Ikastolako langileak
1344	AEK euskaltegia	1349	Ikastolako gurasoak
1345	Zaragueta herri eskola	1350	Txurrumuski eta gaztelekua
1346	Karkara Aldizkaria / Herrio natur taldea	1351	EH Bildu / Xaltxerak eta Gaztetxea
1347	Maria Maestra haurreskola / Harribil dantza taldea Toki-Alai elkarte / EAJ	1352	Orio Arraun Elkarte



U.K. HITZA

## Aiako VI. Mendi Lasterketa

Martxoaren 5ean goizean jokatu zen Aiako VI. Mendi Lasterketa. Eguraldi kaxkara zegoen iragarrita, baina azkenean euririk ez zuen egin, eta lasterkariek giro ona izan zuten korrika egiteko, ibilbidean zehar hezetasuna eta lokatza topatu arren.



U.K. HITZA



U.K. HITZA





KARKARA



KARKARA



KARKARA

## Orioko VII. Mendi Lasterketa

Goizean zerua oskarbi zegoen arren, eguraldiak ez zien lagundu martxoaren 12an Orioko Mendi Lasterketako parte-hartzaileei. Hotzak eta euriak, ordea, ez zituen beldurtu lasterketa hasi zuten 324 lasterkariak. 312 izan ziren Ikastolak antolatutako lasterketa amaitu zutenak.



# ADREILUA ALDE BATETIK, LIKIDEZIA BESTETIK. ZER IZANGO DA?

## Formula:

Higiezinen sektorean inbertitzeko modu berria proposatzen dizugu. Modu horren arabera, eraiki berri den kalitateko higiezin bat bezalako balio segurua lortzeko aukera edukiko duzu, eta beraz, balioa handitzeko potentzial interesgarria izateaz gain, zure inbertsioagatik errenta bermatuaz gozatuko duzu. **Horrez gain, etxebizitza erostean BEZaren %10 kendu dezakezu.**

### FORMULA OSO SINPLEA DA:

ZUK PISUA EROSI ETA GUK LAGUNDU EGINGO DIZUGU PISU HÖRI ALOKAIRU EGOKIAN JARTZEN, EDO, NAHIAGO BADUZU, GUK GEUK ORDAINDUKO DIZUGU HILEKO ERRENTA FINKO ETA ASEGURATUA.

Irtenbide bikaina da, zure inbertsioagatik hainbat etekin lortzeaz gain, ondarea eskuratzen duzulako.

Eta pisua zurea denez ondorio guztietarako, hura alokatu, saldu edo zuretzako edo familiarentzako erabil dezakezu nahi duzun beste, nahiago izanez gero.

**5 etxebizitza** baino ez ditugu formula orijinal eta seguru honetan; beraz, informazio gehiago eskuratzeko, dei gaitzazu ahalik eta arinen.

Bermea



Inmobiliaria  
**ORIO**  
ERAKUNTZA  
SUSTAPINA  
KONSUMETZA

Nafarroa Kalea, 13 - Zarautz

**943 89 44 33**

# Azken aukera

**ETXEBIZITZA LIBREA EROSTeko AZKEN AUKERA.**

Inbertitzaileentzako 5 azken etxebizitzaz gain

- 3 logeletako etxebizitza 1
- 2 logeletako 3 etxebizitza





# “Ez ziguten bizitzaren aginte-makila hartzen irakatsi”

Gogoz bildu dira KARKARArekin Irati Zabaleta, Joseba Verhegge eta Garazi Lertxundi. Azken urtetako krisiak beren bizi proiektuetan eragin zuzena izan duela eta, aho bizarrik gabe erantzun dizkigute egindako galderak.





**TESTUA: IÑIGO GAITON**  
**ARGAZKIAK: KARKARA**

**1** 982 eta 2004 urteen artean jaiotako gazteak dira *milenialak*. Gurasoak baino egoera sozial, politiko eta ekonomiko hobean hazi ziren, kreditu txartelek poparean irrist egiten zuten garaian. Heltzen joan ahala, krisiak etorkizuna lausotu zien kolpetik, eta amets herdoilduen jenerazio gisa definitu dituzte gaur egun: norbanako nagitsuak omen dira, nartzisistak eta dena onartu zaienak. Aldiz, kritikoak ere bai, parte hartzaileak eta, jakina, digitalak.

Hiru elkarrizketatuek goi mailako ikasketak dituzte: Iratik nanozientzia ikasi zuen eta zientzia klaseak emateko irakasle titulua ateratzen ari da, Garazik ikus-entzunezko komunikazioa eta The Niu agentzian dabil lanean, eta Joseba arkiteturako azken proiektua bukatzen dabil egunotan.

#### **Esne mamitan haziak omen zarete.**

Beno, hein batean bai, litekeena da. Umetan eta gaztaroan ez zitzaigun ezer falta izan. Ordea, heldutzen joan ahala, krisiak bete-bete harrapatu gaitu; kolpetik gordindu zaigu erreallitatea.

#### **Dena eginda eman zaizue?**

Gurasoek transmititu ziguten gauzak lortzeko lana egin behar dela, esfortzurik gabe ez dagoela ezer ... Horrekin batera, sekula ezer faltako ez zitzaigun sentsazioarekin hezi gintuzten, nahigabe. Beren garaian puzten joan zen globoa, guri lehertu zaigu pare parean.

#### **Errazegi bizi izan zineten, beraz.**

Litekeena da, baina ez da gurasoen errua. Sistemak berak bultzatu zituzten gu horrela heztera. 18 urte bete bitartean



“Gurasoek, oharkabeen, ezer faltako ez zitzaigun sentsazioarekin hezi gintuzten.”

“Gaur egun, lan munduan asko baloratzen dira kreatibitatea, inizatiba erakustea eta erabakiak hartzeko gaitasuna izatea.”

buruhauste potoloena zerak sortzen zigun, batxiler zientifiko, teknologikoa edo letrena aukeratzeak. Hor du erroa gerrora sortu zaigun arazoak: ez dakigu erabakiak gure kabuz hartzen, ez gaituztelako horretarako hezi.

## LAN MUNDUA & IKASKETAK

**Gurasoak baino baldintza txarragoetan biziko den belaunaldia da zuena.**

Hala diote, baina auskalo. Ondo prestatuta gaude, eta gogor saiatuta egingo dugu aurrera. Hala ere, egia da etorkizunak ez duela itxura onik. Sistemaren gabeziak geroz eta nabaria goak dira, hainbat alorretan.

**Lan munduan, nabarmen.**

Enpresetan lanbide heziketako titulua eskatzen zuten lanpostu askotan aritzeko, esate baterako, unibertsitateko ingeniari titulua eduki behar da orain. Kezkagarriena zera da, lan munduak sufritu duen aldaketarekin unibertsitateetan egoerak lehengoa izaten jarraitzen duela.

**Oraindik ere gurasoak entzuten dira, kezkatu, seme-alabaren batek karrerarik egin nahi ez duela eta...**

Gu ez gintuen inork derrigortu fakultatera joatera, baina bai, inertzia bat sortzen da guraso eta irakasleen artean, ikasleak goi mailako ikasketetara bideratzen dituenak. Arrakasta akademikoa eta profesionalaren arteko zubi bakarra unibertsitatea dela usten da oraindik, eta hori ez da horrela. Ikaslea benetan errealizatua sentituko den ikasketak topatzeak behar luke benetako erronka.

**Hezkuntza sistema aldatzen hasteak, lagunduko luke?**

Jakina. Gaur egun lan munduan kreatibitatea asko baloratzen da, ideia berriak proposatzea, inizatiba erakustea edo erabakiak hartzeko gaitasuna izatea. Horretarako prestatu behar dira ikasleak. Hezkuntza sistemak lehengoa izaten jarraitzen du: ikasleei ez zaie beren kabuz pentsatzen, hausnartzen eta ondorioak ateratzen irakasten.

**Lan munduaren egoera makurraren aurrean, injustizia sentitzen duzue?**

Bai. Benetako aukera bat eskatzen diegu enpresei, dakiguna erakusteko. Praktikak, bekak eta halakoak ematen dizkigute, amaitutakoan hitz onekin maneaturak: *oso gustura gaude zurekin, baina...* Bekadunak kontratatzea pagotxa bihurtua da enpresa askorentzat. Praktiketan duten gaztea ona bada ere, bota eta hurrengoa hartuko dute denbora baterako. Errotazio sistema moduko mekanismoa sortu da.

**Orain asko hitz egiten da ekintzailearen figuraz. Ez da gehiegi hauspotu edo idealizatu?**

Akaso bai. Enpresetan lan gutxi dagoenez, zure kabuz negozioa ekiteko kanpaina asko bultzatzen dira; ordea, autonomoen tasa inon baino altuagoa da hemen. Horrelako kontraesankin bizi gara.

**Kanpainetan ekintzaileei lanean, pasioa da garrantzitsuena, lan ordu eta soldatetik harago eta halako esaldiak atxikitzen zaizkie.**

Enpresek gazteon aukera falta aprobetxatzen dute gustuko

ditugun lanak eskaini eta jartzen dugun gogoari etekina ateratzeko, ekonomikoki behar bezala saritu gabe. Arazo larria dago hor. Pasioa garrantzitsua da lanean, noski, baina baldintza ekonomiko duinak izatea ere bai.

### TRANTSIZIOAN DAGOEN BELAUNDALDIA

**Trantsizioan dagoen jenerazioa da zuena, bi munduren artean: smartphonetik erosten dituzue zinemarako sarrerak, gero paperean inprimatzeko. Tinder erabiltzen duzue ligatzeko, baina oraindik elizan ezkontzen zarete asko.**

Iraultza digitalak kaosa ekarri du gizartera. Mundu berean bizi dira mugikorrik gabeko erralitaterik ezagutu ez duen gaztetxoak eta smartphonik sekula erabil ez duen adinekoak. Derrigor, normala da hor nahasmena sortzea.

**Millenialak internetera konektatuta bizi zarete.**

Horrek mundua eskura duzunaren sentsazioa sortzen dizu, gero horrela ez bada ere. Ondorioz, eskastu egin dira pertsonen arteko aurrez aurreko harremanak.

**Baloreak galdu dira?**

Bai, dudarik gabe. Ez dakigu bakarrik egoten, pribatutasunaren balioa ere galdu dugu. Aurrez aurreko komunikazioari ez diogu berez duen garrantzia ematen.

**Nartzisismoaren kontua ere aipatzen da.**

Bai, jende askok egiten duen oro publikatzen du sarean: hemen gosaldut, hara goaz lagunak, zapata berriak oparitu dizkidate ... Bizitza pribatua izatea ez da baloratzen; kontrakoak, sare sozialetan profilik ez daukana bihurtu da arraroa gaur egun.

**Sare sozialekiko menpekotasuna sendatzeko zentroa zabaldu zuten iaz Txinan.**

Ez da harritzekoa. Sareko aktibitate publiko horrekin litekeena da jendea, inkontzienteki bada ere, barnean dituen gabeziak estali nahian jardutea. Argazki horietan, sortzen da halako pose faltsu bat, non mundu guztiak eder eta alai agertu behar duen uneoro ... nekagarria da benetan.

**Gizartean norbait izatea bilatzen da halakoetan, baloratua sentitzea.**

Askok interneteko *atsegin dut* eta halakoetan neurtzen du bere estatus soziala; alegia, mundu birtual baten menpe ditu, hein batean, autoestimua eta izaera.

**Ikusi makusira jostatzen genuen gurasoekin, kotxeko bidai luzeetan. Orain marrazki bizidunak ikusten dituzte tabletan, ez aspertzeko.**

Bai, eta telefonoa uzten zaie jolastu eta matrakarik eman ez dezaten. Aztertu beharrekoa zera da, gurasoak kontziente dira gailu digital horiek umearen heziketan izan dezaketen eraginaz? Prestatu gara tresna horiei erabilera egokia emateko?

### LEHENTASUNAK

**Dituzuen aurreikuspen ekonomiko makurrekin, etxe bat erosi edo dirua egitea ez dira zuen helburuetan sartzen.**

Lehen etxebizitza bat erostea zen, behin lanean hasita, gehiengoak *egin beharreko* zerbait. Krisiak zerbait ona ekarri badigu guri, horixe izan da: zalantzan jartzea ea 30 urteko



“Mundu berean bizi dira smartphonerik gabeko errealitytaterik ezagutu ez duen gaztea eta mugikorrik sekula erabili ez duen adinekoa”

“Jende askok sareko *atsegin dut* eta halakoekin neurtzen du bere estatus soziala”





hipoteka batean sartzeak bizitzari zentzua eman diezaiokeen. Honek ez du esan nahi etxebizitza bat izateko eskubidea urratu behar zaigunik, horretarako alternatiba duinak existitzen baitira.

**Ez zarete, beraz, aurreko jenerazioak bezain materialistak.**

Etxebizitza edo kotxe berria erosteari dagokionez ez, baina gure artean ohikoak dira 600 euroko Iphone-ak patrika urratuenetan ere.

**Egoeraren aurrean, ez duzue ernegatu aurpegirik. Iraultza gurasoen etzeko plater bero eta maindire artean nagitu ote da?**

Sistemak justua ematen digu ustez ondo bizi garela sinesteko. Dirurik ez zaigu falta trago batzuk hartzeko, futbolarekin entretenitzen gara, sare sozialetan ustez sozializatu ... Sistemak beti izan ditu martxan jendea entretenituta, alegia, erdi lo mantentzeko politikak.

**Galdera da, beraz, ondo (egi) bizi zarete?**

Ondo, bai. Hein batean, pribilegiatuak gara. Espainia hegoalderantz joanda, egoera askoz okerragoa da eta mediterraniar itsasora begiratuz gero, zer esanik ez. Komeni da tarteka perspektiba aldatu eta ditugun gauzak baloratzea, ez baitira gutxi.

**Soziologo batek dio zuen jenerazioa gertuago dagoela politikatik, baina urrutiago alderdiengandik.**

Bai, izan liteke. Gai sozialetan muturra sartzeko gogo izugarria dugu, besteak beste, injustizia asko azalean bizitzea tokatu zaigulako. Ordea, zaila egiten zaigu gure interesak defendatuko dituen alderdi batekin identifikatzea. Urteetan alderdi politikoak urruti egon dira jendearen beharretatik, eta orain, gauza batzuk aldatzen ari badira ere, oraindik za-

bala da bien arteko aldea.

Zoritxarrez, ideia berritzaileak legalki aurrera eramateko betiko politikak dituen filtroetatik pasa behar da, eta horien mekanismoak zaharkituta daudela kontuan hartuz, normala da proiektu eta asmo berriak diluitzen bukatzea.

**Zer da zoriontasuna zuentzat?**

Zoriontasuna markatzen du, hein batean, duzun konformismo mailak. Garrantzitsua da bizitzan helburuak izatea, baina horiek lortzearekin itsutu gabe, bidez gozatzen ere ikasi behar da. Hazi gaituzten edo garen moduagatik, asko idealizatu ditugu bizitza, lana, maitasuna ... Arazo askok idealizazio horretan dute sorburua. Espektatiba handiak egiten ditugu, eta ez dakigu gauza gutxiarekin konformatu eta zoriontsu izaten.

**ZENBAKIA**

**2020**

**Lana.** Datuen arabera, 2020. urtean lan munduaren %50-a millenialek osatuko dute.



**sinergia**

FISIOTERAPIA

IKERKETA

IBAI ONDO 1, BEHE-OINA WWW.SINERGIA-WEB.COM  
TF.: 943 130 577 685 718 595

**LESIOAK:** BIHURDURAK, TENDINITISAK, ZAINTIRATUAK, KONTRAKTURAK, HANKA HANDITUAK, ARTROSIA, ALTERAZIO POSTURALAK, BIZKAR HEZURREKO ARAZOAK, ARNAS GAIXOTASUNAK HAUR ETA HELDUETAN, LESIO NEUROLOGIKOAK, HAURDUNALDIRAKO TRATAMENDU BEREZIAK, ERDITZE ONDORENGO ERREKUPERAZIOA

**TRATAMENDUAK:** TERAPIA MANUALA, OSTEOPATIA, RPG, MASAJEAK, DRAINATZE LINFATIKOA, ARNAS FISIOTERAPIA, KINESOTAPIA, PILATES, ABDOMINALETAKO GIMNASIA HIPOPRESIBOA (GAH)



Maidor Arrilaga Sarasola · 138. Kol. zenb. Arrantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa  
Tel. 943 575 361

**oinarri**  
PODOLOGIA ZENTROA

**2GURPIL**

Baxoalde 2 - 3 · 20810 Orio (Gipuzkoa)

T 943 835 980 W www.2gurpil.com E bigurpil@hotmail.com

**Orioko Herri Ikastola**

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04

FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net

**OREKA FISIOTERAPIA**

Tendinitisak  
Lumbalgiak  
Artrosia  
Zefaleak

Masaje terapeutikoa,  
hentsoak, akupuntura  
eruzko terapia,  
osteopatia

**943 13 35 37**  
Aritzaga kalea, 11 behea

**ORIA hortz klinika**

Orio Hortz Klinikak **ORFODONTIA** zerbitzu berria jartzen du martxoan. Prebentzioa ezinbestekoa dela jakinda, hartu aurre-erorkuntzean sar daitezkeen arazoak.

Amantzale kalea, 63 behea  
20810 ORIO  
Tel.: 943 83 36 45

**ITZIAR**

kirolak

Tel. 943 83 31 03

943831048  
610697668 **www.fotoramiro.com**

**libe dietetika**  
elikadura aholkularitza

eusko gudariak 35 :: ORIO [ sarrera Amantzale kaleak ]

943 53 64 94 - 697 23 86 56  
libegarmendia@gmail.com

**Jaunartzeak 2017**  
Ure bat, sententzio bat, sentimendu bat  
BERBIN GERTATZEN DA BEZTZAN

**ROSANA**  
ARGAZKI ESTUDIOA  
fotorosanaarruti@gmail.com  
tel: 943 83 58 65

libe apaindegia  
**MARIJO**

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - behea  
Tel. 943 13 47 29  
ORIO


**URAITZ**  
lurrindegia  
jantzi-argariak

Endara 3 Tfno: 943 83 18 97

# Peronaren begiratua euskal itsasontziei

## Kritika

**Mirada a las naos vascas del s. XVI. Arquitectura naval, diseño y trazas**, Horixe du izenburu Jesus Mari Peronak plazaratu berri duen liburuak.



Donostiako Aquariumean aurkeztu zuen liburua Peronak . KARKARA

Jesús Mari Arinenean aritu zen arotz-lanetan, eta gero, ETBko Miramoneko estudioetan. Arraunlari ere bai, Orioko traineruan. Txikitatik, itsasontzien maketen zale amorratua izan da beti, eta azken urteotan ontzi askoren maketa ikusgarriak egin izan ditu. Bidean ikasitako guztia atera du lan honetan Peronak, hustu egin zaigu. Agerian utzi du itsas ontzigintzari dion maitasuna, eta gaian duen ezagutza handia.

Itsasontzien ikuspegi historikoa landu du liburuan, baina alderdi teknologikoa ere bai, sakon. Kutsu literarioa ere eman nahi izan dio: hizketan jarri ditu, lehen pertsonan, historiako zazpi euskal itsasontzi, bakoitza bere buruaz. Eta aldarrikapena ere egin nahi izan du, protesta eginez Euskal Herriak ahaztuta eduki duelako, mendetan, marinel euskaldunen itsasoko historia heroikoa.

Liburura ekarri dituen planoek ikusgarritasuna ematen diote lanari, bisualagoa egin eta kutsu didaktikoa emanez. Ontzigileek erabili ohi duten terminologiako hiztegitxo bat ere osatu du, ontzigileen erdarazko ohiko hitzak zerrendatuta.

Historia aldetik, errepassoa egin dio munduan zehar eraikitako ontzi motena. Peronak aletxo bat jarri du euskaldunek itsasoan utzitako historiaren zabalkunde lanean.

IÑAKI ITURAIN





**Zarautz**  
Hileta Zerbitzuak

> Hilerrien kudeaketa  
> Hileta zerbitzu orokorrak  
> Zerbitzu iraunkorra



**Harrespil**  
Hilerri Zerbitzuak



Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxe: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net

**EGIN ZAITEZ**

**Karkara.eus**

**KOMUNITATEKO KIDE**



**ELEKTRIZITATEA**

*Ander Exposito*

943 831 774

600 856 728

anderexpoelektrizitatea@gmail.com



*Xapa zapataria*

*eman beste aukera bat zure zapata eta osagarriei*

Herriko plaza. Orio

**KAIJOA**

Arropa  
Oinetakoak  
Osagarriak

Amatele kalea, 8  
T 943 104 895  
ORIO (Guzkoa)

Zorbele kalea, 18  
(5. Piztzele kalearekin ibarri)  
T 943 021 834  
ZARAUTZ (Guzkoa)

Ereber kalea, 10  
T 943 543 000  
ZARAGOZA (Guzkoa)

www.kaioa.es



**EKILORE GARBIKETAK**

626417841  
ekilore@outlook.es

**K·U·K·U·A·R·R·I**  
ELEKTRIZITATEA



Tel. 943 100 181  
Mobila 640 261 363  
Zigordia, 52 - Beheia C  
20800 Zarautz

kukuarri@kukuarri.com

**arkaitz taberna**  
orio

- Ogitaratekoak - Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Karta

Terraza ederrarekin  
Giro ezin hobea

**abeslari kalea 6 - 943 831 657**



**PATXI OLIDEN**

Hemengo haragia.  
Etxeko produktuak: tripaki, odolki, txekorra, txorizo, krokettek...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

**kirol txokoa**



Apirilaren 18tik-21ra · Goizeko 9:30etatik 12:30 arte  
Kirola onarri duten jarduerak: skate, tailorak, multikirola, igerileku jolasak...

**KARELA** Eriberak 1, 20810 Orio · 943 894 428 · orio@bpxport.es



Arkaitzako Patxi, Joanes, Jurgi, Marije, Koro, Amaia, Lurdes eta Jone. IKORKOTX

## Oroimenaren kutxa

# Oreretako oriotarren taberna

Oreretako herritar batzuek omenaldi beroa egin zioten, otsailaren 25ean, hango Arkaitza tabernari eta azken 40 urteotan taberna daraman familiari, Arruti Peña oriotarrei. Omenaldian izan ziren Orioko traineruko neska arraunlariak eta Errikotxiako bi bertsolari. Ez da ohikoa herri batean tabernari batzuei horrelako maitasun erakustaldi bat egitea, zergatik eta tabernan egindako lanagatik. Zer dago horren atzean?

1997an, Orioko familia batek, senar-emazte eta bost seme-alabek, beren jaioterria utzi zuten. Gurasoak baserritarrek ziren, Andun jaiotako Manuel Arruti Lertxundi eta Itzaizko Iñaxi Peña Sarasua. Seme-alabak, gaztetxoak: Patxi, Koro, Lourdes, Jone eta Amaia. Gaur egungo beste milioika jenderen moduan, emigratu egin zuten. Arrutitarrek zerrategi bat zuten, orain Indo garraio-enpresa dagoen eremuan. Petrolioaren krisiak gogor kolpatuta, Manuel eta Iñaxik Oriotik joatea erabaki zuten. Irun aldera abiatu ziren, baina Errenterriako Zumardian taberna bat salgai ikusi, eta hura hartu eta bertan geratzea erabaki zuten.

Geroztik 40 urte pasatu dira. Bidean, gurasoak zendu ziren, aita 2012an eta ama 2015ean. Orain bi alaba gazteenek dute tabernaren ardura, Jonek eta Amaiak. Aurtengoa ez da arruti-peñatarrek oreretarren aldetik jasotako lehenengo gorazarrea. 2000 urtean herriko Xenpelar Bertso Eskolak egin zien lehena, bertsolaritzaren alde egindako lanagatik: *Taberna honek gure herrian badu hamaika maitale, egiten dena ondo egin dagoenaren seinale; euskal giroan bila bazabiltz ez dizu egingo kale, segi ezazu euskaldun eta segi zazu bertsozale*. Herriko Oarso aldizkariak erreportaje bana plazaratu zuen aita eta ama hil zirenean.

Zergatik baina omenaldi horiek? Hona zer zioen Jexux Aduriz aurtengo omenaldiaren antolatzaileetako batek: *Arkaitza guretzat bigarren etxea izan da beti*. Mikel Markezek, berriz, Orion bizi den oreretarrak, hauxe: *Jende aurreko nire aurrenekotako emanaldia Arkaitzan izan zen. Oraindik ere,*

*disco berria ateratzen dudanean, han jartzen dut salgai. Taberna hori sortzaile askoren topaleku izan da. Toki eta jende atsegina da oso. Lander Garro euskal idazle errenteriarrek: *Gaztetan asko ibili ginen Arkaitzan, orduan dena erdaraz egiten genuen, Joneren errietatxoak –euskalduna izanda, nola ba erdaraz?– ekarri ninduen euskaraz egiten hastera. Hona Xenpelarrekoen bertsoa, Manuel zena gogoan: *Orain hogeita hamabost urte, hain erabaki larria, Errenterira etorri zinen, utzi-tajaioterria, etxea eta lana aldatuz, dena zenuen berria, emazte eta seme-alaben, laguntza izugarria, garai bateko bertso giroa, berpiztera etorria.***

Garbi dago omenaldia zergatik: Oreretan utzi duten arras-toagatik. Manuelek eta Iñaxik ez zekiten askorik soziolinguistikaz, ezta hizkuntza biziberritzearen teoriaz ere. Baina euskaldun eta euskaltzale ziren, eta naturaltasun osoz eraman zuten beren euskaltasuna Errenterriko bihotzera, Zumardiko taberna hartara. Eta Arkaitza arnagune bihurtu zen Errenterian, euskaltzaleen topaleku; ordurako oso erdaldunduta zegoen herri hartan. Orduan, artean, sortu gabea zen Bilboko Kafe Antzokia. Manuelek eta Iñaxik jakin gabe, Arkaitza izan zen lehenengo euskal kafe antzokia.

Andukoak eta Itzaizkoak natural jokatu zuten, Kukuarriren magalean ezagututako kultura eraman zuten Oreretara. Haren ezaugarri eta ikur batzuk ipini zituzten tabernan, apaingarri: sarrera ondoan uztarri bat, idien adarrak eta guzti, haien familiarrena den Orioko Antilla tabernan bezala, eta Errenterian bizi izan zen Txirrita bertsolariaren koadro bat.

Manuel Orioko Errikotxia bertsolariaren kastakoa zen. Barru-barruan zeraman bertsoaren harra, eta haien tabernan bertso-saio asko egin ziren. Noiznahi elkartzen ziren inguruko bertsolari eta bertsozaleak, kantuan: Xamalbide, Mitxelena... Baita izen handikoak ere: Elortza, Iturriaga, Sarriegi, Alaia eta Jon Martin...

Arkaitzan sartzen dena etxean dago!



*edariategia*  
**ANTILLA**  
*jatetxea*

Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 23 00

**Carmen eta Txomin**  
 ARRADEGIAK



943 83 05 37 / 943 83 27 47

**HAIZE BERRI**  
 taberna-jatetxea-kafetegia

Plater konbinatuak,  
 bokatak,  
 hamburgesak,  
 rasiok,  
 eguneko menua...

*ostiralean  
 pintxo  
 potea!!*

eta etxera eramateko  
 zerbitzua!

**943 831 623**

Osteko kalean, Erribera 1  
 GAZTAN 2004

**SU  
 KIA**  
 TABERNA, JATETXEA

On aghi eta geru... hanta KOPA eta TOPA!

- DILASKO ERREAK ERAMATEKO
- EGUNEKO MENUA
- EGUNKARIAK
- OGIA

TEL. 943 832 128  
 AGARDIEN 36, 1. BARRIO

*Portu*  
**ERRETEGIA**

Santo Erreka Auzoa, 2/3  
 943 89 24 34  
 20809 AIA-ORIO

*bratok lasenba osten  
 pintxo erabak ezakbi maza*

**ITZALA**

*kartelan jokatzenko  
 aprofesa*

tel. 943 83 12 59

**Gabon**  
 TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitaratekoak

943 83 06 09

**KOLON TXIKI**  
 ostirategia  
 jatetxea

Herriko Euzarantz, 4  
 ORIO  
 Tel. 943 83 00 44

**ARISTERRAZU**  
 jatetxea

Andatza auzoa - AIA  
 Tel. 943 83 45 21

**ASADOR  
 XIXARIO**

Lurko Gatariak Kalea, 2  
 Tel. 943 830 019 - ORIO

**kutixi**  
 kafetegia  
 GOSARI GONDOAK

Arizaga 9, 20810 Oriu  
 Tel. 943 13 13 17

Telf: 943890416

Gabona

**Orio  
 Menua**



KAFETEGI-OKINDEGI-GOZOTEGIA **GELATTO**



943 578 176  
 Herriko euzarantz

lzoeki naturalak - Opilak

**PIZZERIA**



**KALETA**

ARRANTZALE KALEA, 10  
 TELEFONOA: 943 24 89 46

**INDO**  
 Garraio frigorifikoa  
 NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Ubegun industriagunea, 4  
 Tel. 943 894 024  
 Fax. 943 130 144  
 20809 AIA - ORIO







## “Zaragueta ere Korrikan! Euskararen lagun!”

**Lisette Sanchez eta Yamina Benabdallah**

Zaraguetako LHko gurasoak

Zaraguetako LH 4. mailako bi ama hauek, benetan euskararen aldeko korrika pertsonala egiten ari dira.

Egun hauetan Yamina eta Lisette, gelan izan ditugu. Yamina Algeriatik etorri zen orain dela 8 urte, urte beteko semearekin. Eta Lisette, berriz, joan den ekainean iritsi zen Oriora. Biak, argi ikusi dute bertako kulturaren integratzeko hizkuntza eskuratu beharra. Hau dela eta, Orioko Euskaltegian ematen ari dira beren lehenengo urratsak.

**Nolatan hasi zarete euskara ikasten?**

**Y:** Iritsi nintzenean, ez nekien hemen beste hizkuntza bat hitz egiten zenik. Algerian bezala gertatzen da, han ere arabieraz gain amazigera edo berberea hitz egiten da. Beharra sentitu nuen, zaila iruditzen zitzaidan arren. Orain bi hizkuntza batera ikasten ari naiz, euskara eta gaztelera.

**L:** Iritsi ginenean, euskarazko hitzik inoiz entzun gabe geunden. Eta udarant bertan hasi ginen ikasten

**Gustukoa al duzue?**

**Y:** Hasieran ez nuen gustukoa, oso zaila iruditzen zitzaidan, baina orain gogo handia dut ikasteko, nire semeekin hitz egiteko eta kaleko jendearekin komunikatzeko.

**L:** Oso zaila iruditu zitzaidan, baina ikustean nire alabek nolako saiakera egiten ari diren integratzeko, indarra ematen dit, ikasten jarraitzeko.

**Euskaltegira joateak lagundu al dizue?**

**Y eta L:** BAI!!! Askok.

**Kulturalki zer ezberdintasunak sumatu dituzu?**

**L:** Hemen ogia erostea, ez da beste munduko gauza bat. Venezuelan, berriz, ilara handiak egin behar dira ogi barra bat erosteko. Beste aldetik, birziklapenaren inguruan sentsibilizazio handia duzue.

**Zer sentitzen duzue faltan?**

**L:** Familia, itsasoko ur epela, txokolatea eta nire DBH-ko ikasleak.

**Y:** Familia, gure janaria eta nola ez, hango udaberri zoragarria



Nahia Uranga

## Gerren ondorioak

**Z**oritxarrez, egun edozer kontugatik sortzen dira gatatzak. Adibidez: *The Gods Must Be Crazy* filmean lanerako tresna bihurtu zen botila batengatik ere haserretu ziren, denek batera erabili nahi zutelako. Baina, gerrak gatazka handien ondorioz sortzen dira.

Komunikabideetan ikusten ditugunak ez dira guztiz egia, errealitatea tapatzen dute, guk ez jakiteko benetan gertatzen dena. Gainera, informazioa eufemismoz leuntzen da: gerrako hildako zibilei, alboko kalteak deitzen diete! Guk uste duguna baino gehiago sufritzen dute.

Batetik, familiak bere kideak utzi behar izaten ditu, salbu mantentzeko. Agian ez dituzte gehiago ikusiko. Honela, familiak sakabanatu egiten dira eta sexu esplotazioa ere jasaten dute.

Bestetik, gerran gehiegi gatzatzen da. Armetan gatzatzen dena erabiliz, ospitaleak, haurren eskolak eta hezkuntza gutxienez hiru aldiz hobeak izango lirake.

Gerren aurrean oker jokatzen dugula iruditzen zait. Zerbait gehiago egin genezake.

**Informazioa eufemismoz leuntzen da: gerrari hildako zibilei alboko kalteak deitzen diete!**

# Nola erregulatzen dira erabilera turistikorako etxebizitzak?



2016ko uztailen Turismoaren 13/2016 legea onartu zuen Eusko Jaurlaritzak. JOXEMARI OLASAGASTI

Etxebizitza partikularrak edo horietako logelak turismorako alokatzea azken urteetan gorantz doan jarduera da. Hori erregulatzeko 2016ko uztailen Turismoaren 13/2016 legea onartu zuen Eusko Jaurlaritzak. Legea 2016ko abuztuaren 31tik dago indarrean eta erabilera turistikoko etxebizitzak eta logelak hartzen ditu bere baitan..

## Erabilera turistikorako etxebizitzak eta logeletako ostatuak

Erabilera turistikoko etxebizitzak, aipaturiko legearen arabera, *turismo edo opor arrazoiengatik ostatu modura merkaturatzen diren etxebizitzak dira, jabeak, ustiatzaileak edo kudeatzaileak hirugarren batzuei lagatzen dizkietenak, aldi baterako eta berehala erabiltzeko moduan.*

Hala nola, ostatu zerbitzua kontsideratuko da *etxebizitza partikularretako logeletan oporretarako edo turismorako ostatu-zerbitzuak prezio bidez eskaintzea*. Titular berak ezin izango du etxebizitza batean baino gehiagotan logelarik eskaini.

Jarduera turistikoa egin nahi duten etxebizitzek kontserbazio egoera oso onean egon behar dute eta arlo hauetako araudi eta baldintzak bete beharko

dituzte: azpiegiturak; hirigintza; etxegintza; segurtasuna; ingurumena; osasuna eta kontsumoa eta higiena eta laneko osasuna.

Derrigorrezkoa da etxebizitzak turismo-jarduera gisa alta ematea. Izan ere, legearen arabera, klandestinitzat joko da tramitazio hori egin gabe etxebizitzak kontratatzea.

## Alta emateko prozedura

Erabilera turistikorako etxebizitza edo ostatua duenak alta eman beharko du jardueran. Batetik, jardueraren berri eman behar du Udalean, dagokion dokumentazioarekin.

Bestetik, Eusko Jaurlaritzako Turismo sailean, erantzukizuneko adierazpena aurkeztu beharko da. Adierazpen ereduak Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Sailaren lurralde ordezkari-tzetan edo Euskadiko turismoaren webgunean eskura daiteke. Behin adierazpena beteta, Sailaren lurralde ordezkari-tzetan, egoitza elektronikokoan edo Zuzenean zerbitzuan aurkeztu behar da.

Hainbat dokumentu aurkeztu behar dira adierazpenarekin batera: bizigarritasun-zedula edo lehen okupazioko lizentzia, etxebizitza erabiltzeko esku-

bidea frogatzen duen agiria, etxebizitzaren eskalako planoaren kopia bat edo banaketaren eskalako marrazkia –ostatuaren kasuan, bertan markatuko dira turismo jarduerarako erabiliko diren gelak–, etxebizitzaren argazkiak eta ordezkari-tzaren ahalordea, izanez gero. Logeletako ostatuaren kasuan, titularra jarduera egiten den etxebizitzan bizi dela egiaztatzeko agiria ere aurkeztu beharko da, hau da, errolda ziurtagiria.

Erantzukizuneko adierazpena aurkeztutakoan etxebizitza EAeko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan inskribatuta geratuko da eta, etxebizitza horren iragarkia eginez gero, erregistro-zenbakiak agertu behar du.

## Hamabost espediente Orion

Hamabost espediente aurkeztu dira Orion etxebizitzaren erabilera turistikorako, hau da, jardueraren hamabost aurre-komunikazio jaso ditu Udalak. Horietatik hamaika banakako etxebizitzek dira eta beste hiru enpresa kudeatzaileenak. Aurkeztu diren espedienteetatik gehienak hondartza inguruko etxebizitzak dira, Antilla eta Abarromendi gunetakoak.



EAJ

### Apartamentu turistikoak Orion

Gizartea aldatzen ari da eta bere oporraldiak antolatzeko modua ere aldi berean aldatzen ari da. Pixu turistikoek nabarmen egin dute gora beste aukeren artean eta ona da Orioko olatu horretara igotzea. Gure ustetan Orioko puntu estrategiko batean dago kokatua, autopistako irteera dela eta Donostiatik 10 minutara dago, zer esanik ez kostako gainerako beste herrialdeenkin. Orioko bezalako herri txiki baina eroso batean pasa ditzakete turistek oporraldiak eta aldi berean Euskadi ezagutzeko leku paregabe batean daude. Eta nola ez Orioko ekar diezazkiokeen onurak, gure herriko komertzioari, tabernei eta herrian eskaintzen diren zerbitzuei. Baina bestetik Oriotarrentzat ere onurak izan ditzake. Kudeaketa zuzen eta on bat eramanaz herritarrek gaur egun legediaren barruan erabilera eman diezaiekete hutsik dituzten etxebizitzetara. Orokorrean bai Orioko herriarentzat, bai herritarrentzat gizarte aldaketak eskaintzen duen etorkizuneko aukera paregabea da.



### Orain

#### Eskaera eta eskaintza gora

Etxe hutsak helburu turistikoekin erabiliak izateko joera gero eta agerikoagoa da, batez ere kostaldeko herrietan. Bartzelonan arazoak bihurtu da, Donostian kezkatuta agertu dira turismo arloan lan egiten dutenak eta herri txikietan ere arautu egin behar da. Etxeak udarako denboraldian alokatzea ez da jardueraren ekonomiko berria. Hala ere, eskaera eta eskaintza asko ugaltu dira azken urte hauetan, batez ere internetek ematen duen informazio erraztasunengatik -argazkiak, baldintza zehatzak, konparaketak, etab.-. Ibilbide luze baten ondoren onartu eta indarrean dagoen Turismo Legea -13/2016 Legea, uztailearen 28koa, Turismoarena- apartamentu turistikoa ostatu-establezimendu mota bat bezala agertzen da -38 art.- eta bi artikulutan zehazten dira -44 eta 45 art.-.

Ikusita arautu eta legeztatutako behar direla erabilera turistikoa duten etxebizitzak, informazioa bildu eta dagokion batzorde informatzailean aurkeztu behar da.



### EH Bildu

#### Apartamentu turistikoak arautu behar dira

Aktibitate hau arautzeko lege bat badu Jauralaritzak, 2016ko uztaileak 28an argitaratua boletín ofizialean. Apartamentu turistikoaren gorakada neurrigabeak hainbat arazo ekarri ditu Inguruko herrietan, Donostia bertatik hasita non pisu batzuk istera ere iritsi diren. Gai hau herrira ekarriaz, Orioko 400 etxebizitza inguru daudela hutsik jakin behar dugu. Jende asko inbiltzen da gure herrian pisu bat alokairuan aurkitu nahirik eta pisu asko daude libre. Zein da arazoa?...eta, zein irtenbidea? Etxebizitzak apartamentu turistiko bezala erabiltzen badira, ba noski, legeztatua izan behar du; horrek irizpide eta araudi batzuk ezartzea ekarriko bait du, pisu jabeen eskubideak eta beharrak sortuz. Neurrik honek ordea zenbat etxebizitzetara emango die irtenbidea? Honek ez alditu etxebizitzetara prezioak oraindik eta gehiago garestituko, urte osan bertan bizi nahi duen jendeari gauzak zailago jarriaz? 400 etxebizitza horie irtenbidea bilatzea izango litzateke behar bada interesgarria, pisu eskeintza mugituaz.



### PSE-EE

#### Hilabete honetan iritzirik ez

Hilabete honetan ezin izan dute iritzirik idatzi



## Politika

# Aho batez onartu dituzte udal aurrekontuak, oposizioaren emendakinekin

Martxoaren 28an urteko lehen udalbatzarra egin zuten herrian, eta bertan 2017ko udal aurrekontuak eztabaidatu eta bozkatu zituzten udal taldeek. Joxe Angel Zaldua alkateak 7.236.000 euroko aurrekontu proposamena aurkeztu zuen batzarrean; eta kopuru horretatik 265.917 euro inbertsioetara bideratzea aurreikusi zuen.

EH Bildu, Orain eta PSE-EE udal taldeek emendakinak aurkeztu zituzten aurrekontuari modu bateratuan. Modu horretan, alkatearen soldata 28. mailatik 24. mailara jaitea eskatu zuten, eta Obra eta Zerbitzu, Euskara eta Hezkuntza batzordeburuaren lanaldia %25ean ezartzea. Jaitsiera horiekin udalak urtean 20.645 euroko aurreztuko duenez, oposizioak aurrezki hori hurrengo partidetara bideratzea proposatu zuen: zirkulazio seinalizazio eta puntu beltzen partida 7.000 eurotik 10.000 eurotara pasatzea; gizarte ongizateko partida 5.000 eurotatik 8.000 eurotara igotzea; ekintza soziokulturalen partida 10.000 eurotik 18.000 eurotara pasatzea; eta soberakinarekin musika eskolarako bi ordenagailu erostea, liburutegiko partida osatzea, eta gaintzekoa bide publikoen mantentura bideratzea.

Emendakinak udalbatzarrean bozkatu zituzten, eta oposizioaren aldeko zazpi botorekin 2017ko udal aurrekontuaren espedientean jasota geratu ziren. Ondorioz, inbertsioen atala 265.917 eurotatik 270.417 eurotara pasatu zen. Jarraian, 2017ko udal aurrekontuak bozkatu eta aho batez onartu zituzten udal taldeek.

## Emendakinen arrazoiak

PSE-EEko zinegotzi Ana Priedek aurrekontuari emendakinak jartzearen arrazoiak azaldu zituen udalbatzarrean. Inbertsioen atalean udal taldeen arteko adostasuna lortu bada ere, azken urtean alkateak ez duela behar bezala lan egin eta bere jardunean kudeaketa eta antola-



*keta gabezia* egon dela uste du oposizioak. *Ondorioz, alkatearengan genuen konfiantza galdu dugu. Alkatearen soldata jaisteko eskatu dugu, ordainsaria udalerrriaren errealitate sozioekonomikoarekin eta gaur egun alkateak egiten duen lanarekin bat etor dadin. Bestetik, Obra eta Zerbitzu, Euskara eta Hezkuntza batzordeburuaren lanaldia %15ean jaitea proposatu dugu, postu horrek hasiera batean aurreikusitakoa baino lan karga gutxiago duelako.*

EH Bilduk eta Orain udal taldeak bat egin zuten Priederen diagnosiarekin, eta gogoratu zuten alkateak udalean pertsonal arloan dauden hainbat antolaketa eta kudeaketa arazo konpontzeko konpromisoa hartu zuela 2016an, eta urtebetean bide horretan urratsik ez dela egin: *2016 urtearen hasieran bezala gaude.*

Publikoan udalbatzarra jarraitzen ari zen Orioko alkate ohi Mirari Arruabarrenak hitza hartu zuen Orioko EAJren izenean, eta Orioko Udal Gobernua egiten ari den lana defendatu zuen: *Bidean hainbat oztopo jarri badira ere, aurrekontuak onartzea lortu dugu.* Bestalde, Joxe Angel Zaldua alkateak azaldu zuen emendakinak

txertatu arren EAJk aurrekontuaren alde bozkatu zuela, herriarentzat ezinbestekoa delako aurrekontua izatea. *Oposizioak oztopoak jarri arren, Orioren alde lanean jarraituko dugu.*

Oposizioko taldeek argi utzi nahi izan zuten beraiek ez diotela oztoporik jarri Udal Gobernuari, eta EH Bilduko bozerra maile Emeterio Iribarrek gertatzen ari denaren inguruan hausnarketa egiteko eskatu zion EAJri.

## Inbertsio nagusiak

2017ko udal aurrekontuan Orioko Udalak aurreikusi dituen inbertsio nagusiak hurrengoak dira: Estropalari kaleko saneamendu lanak egiteko 31.888 euro; Karela kiroldegiko inbertsioetarako 70.265 euro; Ibaiondon komun publikoak jartzeko 50.000 euro; eta Hiri Antolamenduaren Plan Orokorreko 20.510 euro. Horretaz gain, Zaragueta Herri Eskolaren eraikina handitzea eta Herriko Plaza-Aritzaga eremuko saneamendu lanak egitea ere aurreikusi du Orioko Udalak 2017rako; proiektu horiek epe laburrean udalbatzarrean bozkatzeko asmoa dute.



## Gizartea

### Bukatu dira Etxeluze gaztetxearen 2. faseko lanak

Bukatu dira Etxeluze gaztetxearen segurtasuna eta osasungarritasuna bermatzeko 2. faseko lanak. Obrak aurreikusitakoa baino gehixeago luzatu dira, hasierako proiektuan zenbait aldaketa egin direlako. Bigarren faseko lanek 90.000 euroko kostua izan dute eta Udalak, lan horiek egiteko, Eusko Jaurlaritzako Gazteria Sailaren 18.854 euroko diru-laguntza jaso du.

Eraikina erabiltzen hasi ahal izateko, azken egokitzapen batzuk falta dira (autobabes plana, OCA elektrikoa...); baina lan horiek ezin izango dira burutu Udalak 2017ko aurrekontua onartzen duen arte.

Hitzarmena sinatzea falta

Orain gazteekin hitzarmena adostu eta sinatu behar du Udalak, eraikina erabiltzeko baldintzak finkatzeko eta, oro har, erabilera arautzeko.

## Gizartea

### Maiatzaren 7ko herri galdeketa botoa posta bidez emateko epea zabaldu dute



Maiatzaren 7ko herri galdeketa 16 urte beteta dituzten eta Orion erroldatuta dauden herritarrek parte hartu dezakete. Horretaz gain, egunean bertan Orion izango ez diren herritarrek ere beren botoa posta bidez emateko aukera izango dute gaurtik aurrera.

Horretarako, interesatuek balizaorio@gmail.com helbidean eskaera egin behar dute, eta Baliza elkartetik postaz bidaliko dizkiete boto-paperak. Ondoren hurrengo helbidera utzuli behar dute boto paperak postaz: Baliza elkarte. Iturbide kalea 7, behe. 20810 Orio.

## Kultura

### Herriarteko Txapelketako bertso saioa jokatu zen ostiralean Salatxo tabernan

Aurreko asteburuan hasi zen Gipuzkoako Herriarteko Txapelketaren bigarren fasea, eta Orioko *Sarri nahi genuen eta Habana etorri zaigu* taldeak etxean izan zuen saioa ostiralean, Zumarraga-Urretxuko Si mimimi sol taldearen kontra.

Jende mordo bildu zen Salatxo tabernan, eta Xabier Sukiak, Imanol Lizarazu Habana-k eta Egoitz Eizagirik osatutako taldeak saioa irabazi zuen, 15 eta 9 gailenduta. Hurrengo saioa apirilaren 7an Gabirian jokatuko du Sarri nahi genuen eta Habana etorri zaigu taldeak.

## Kirola

### Aiatik eta Oriotik pasako da Euskal Herriko 57. Itzulia apirilaren 5ean

Apirilaren 3tik 8ra jokatuko da Euskal Herriko 57. Itzulia. Sei etapa izango ditu, eta bi aldiz pasako da Aiatik eta Oriotik.

Laugarren etapan 160 kilometroko Gasteiz-Donostia ibilbidea osatu beharko dute parte-hartzaileek.

12:00etan emango diote hasiera lasterketari Gasteizen, eta 131 kilometro egin eta gero Aiara iritsiko dira txirrindulariak, 16:35 inguruan. Andatza eta Santio Erreka auzoak zeharkatu dituzte, eta Oriora iritsiko dira. Tren geltokiko biribilgunean N-634 errepidea hartuko dute, eta Anibarko Portura joango dira; han Txankako aldapa zeharkatu eta Igeldorako bidea jarraituko dute. Donostiako Boulevardean amaituko da lasterketa 17:19 inguruan. Bosgarren etapan, ostegunean, Donostiatik Bilbora joango dira txirrindulariak, eta bidean eskualdea zeharkatuko dute. N-634 errepidean barrena 13:30ean Oriora iritsiko dira parte-hartzaileak eta Zumairako bidea jarraituko dute.

**AZOKA**

**Iragarkietarako txokoa.** Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

**Alokairua**

■ 25m<sup>2</sup>.ko garaje itxia alokatzen dut Itur-bide kaleko aldapan.

Tfnoa. 943.830744

Helbide elektronikoa: garbichile@gmail.com

■ Loft edo gela bat alokatzeko interesa dut Orion. Inguruko herriren batean bada ere, primeran. Latifa Mejjat Tf: 674811827

■ Apartamentua alokagai Orion. Gela bat, altzariekin. Tf: 648614769

**Lan eskaintza**

■ Bi neska txiki arratsaldeetan zaintzeko emakumea behar da. Emakume horrek 35-50 urte artekoa, arduratsua, alaia eta euskalduna izan behar du. Kotxea eta disponibiltatea izan behar ditu. Udaran ere lan egingo du.

Epe luzerako lana da. Interesatuak telefono honetara deitu: 655729050

■ Neska euskalduna nahi dugu tabernan lana egiteko. Tf: 653709264

**Lan eskaera**

■ Emakumea lan bila, barnekoa, kanpokoa edo gaez. Haur edo zaharren zainketan edo garbiketean lan egiteko prest. Esperientzia eta erreferentziekin. Tf: 600390347 -Katy-

■ Karme, 50 urteko euskalduna umeak zaintzeko lan bila. Tf: 687200368

■ Umeak zaintzeko eskaintzen da emakume bat. Esperientziaduna Tf: 664156444

■ Neska lan bila zaharren zaintzan. Esperientzia eta paperak ditut. Tf: 674123293

■ Ordukako lan bila dabilen mutila naiz. Garbiketaren eta helduen zaintzan. Tf: 603644555

■ Asteburuetarako lan bila nabilen neska naiz. Helduen zaintzan zein garbiketean lan egin dezaket eta paperak ditut. Tf: 663117579

**Salgai**

■ Babes Ofizialeko Etxebizitza bat nahi? Andatza auzoan, 2 logela, trasteroa eta garajea. 115000 euro. Tf: 649017627

■ Aiako aurtengo intxaurrak salgai: 4 kilo, 20 €, tamaina onekoak, etxera eramanda. Pati deitu: 943132131 edota 634 424 887.

**ITSASOA**

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	8:16 eta 20:39	2:00 eta 14:25	
02	9:09 eta 21:35	2:51 eta 15:17	
03	10:12 eta 22:44	3:50 eta 16:19	
04	11:32 eta ____	5:02 eta 17:35	
05	0:09 eta 13:03	6:26 eta 18:59	
06	1:34 eta 14:20	7:48 eta 20:14	
07	2:43 eta 15:19	8:54 eta 21:13	
08	3:37 eta 16:06	9:44 eta 20:00	
09	4:21 eta 16:45	10:26 eta 22:39	
10	4:59 eta 17:19	11:02 eta 23:15	
11	5:34 eta 17:51	11:35 eta 23:49	
12	6:06 eta 18:21	12:07 eta ____	
13	6:37 eta 18:52	0:22 eta 12:39	
14	7:08 eta 19:23	0:56 eta 13:11	
15	7:40 eta 19:56	1:30 eta 13:45	
16	8:15 eta 20:32	2:07 eta 14:21	
17	8:54 eta 21:14	2:47 eta 15:03	
18	9:43 eta 22:09	3:35 eta 15:54	
19	10:50 eta 23:21	4:35 eta 17:00	
20	12:13 eta ____	5:48 eta 18:17	
21	0:43 eta 13:30	7:03 eta 19:28	
22	1:52 eta 14:29	8:05 eta 20:26	
23	2:47 eta 15:17	8:57 eta 21:15	
24	3:34 eta 16:00	9:42 eta 22:00	
25	4:18 eta 16:42	10:26 eta 22:44	
26	5:01 eta 17:24	11:08 eta 23:28	
27	5:44 eta 18:06	11:51 eta ____	
28	6:29 eta 18:50	0:12 eta 12:35	
29	7:15 eta 19:37	0:58 eta 13:20	
30	8:04 eta 20:27	1:47 eta 14:09	

**ZAINTZAKO BOTIKAK**

**APIRILA**

- 1ean eta 2an, Zulaika
- 3an, Iturria
- 4an, Etxeberria
- 5ean, Lasa
- 6an, Izpizua
- 7an, Zulaika
- 8an eta 9an, Iriarte
- 10ean, Etxeberria
- 11n, Zulaika
- 12an, Lasa
- 13 eta 14an, G. Artiñano
- 15ean, Lasa
- 16an, G. Artiñano
- 17tik 21era, Lasa
- 22 eta 23an, Larrañaga
- 24an, Etxeberria
- 25ean, Zulaika
- 26an, Iriarte
- 27an, Lasa
- 28an, Larrañaga
- 29an eta 30ean, Iturria

- **Izpizua:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- **Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- **Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- **Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- **Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
- **G. Artiñano:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- **Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- **Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz
- **Esparza:** Santuiturri plaza, 5. 943 50 47 83 Zarautz

**Katu Horia**  
 016019071420 KATU HORIA  
**ESTROPALARI, 10**  
**20810 ORIO**  
 +34. 943 11 66 99      Larrañaga  
 668 89 11 29      www.katuhoria.com

**Izaskun Estankoa**  
 .Tabakoa  
 .Prentsa  
 .Eskola materiala  
 .Opariak  
 Eusko Gudariak (2008) 041 - 943 83 232

**ttipi**  
**ttapa**  
 943259695  
 tripi@ttapa.oihane@gmail.com  
 Eusko Gudariak, 15 - 20810 Orio



## KOMIKIA



## Orio

**Tailerra**

■ Martxoaren 31n, ametsak interpreta-  
tzeko tailerra Juan Antonio Lopez Bene-  
diren eskutik, 19:00etan Mandalararen  
lokalean.

**Korrika**

- Apirilaren 1ean, Karaokea, arratsalde-  
an, Kultur Etxean. Txurrunuskik anto-  
latuta eta Korrika Kulturalaren barruan.
- Apirilaren 4ean, Korrika Txikia,  
14:45ean, Aita Lertxundi kaletik abiatu-  
ta. Antolatzaileak: Ikastola eta Zarague-  
ta.
- Apirilaren 4ean, triki-poteoa,  
19:00etan plazan eta Korrikari ongi-eto-  
rria egiteko afaria, 23:30ean, Balea elkar-  
tean.
- Apirilaren 5ean, Korrika pasako da  
Oriotik, 00:45 inguruan. Aginagatik eto-  
riko da eta Zarautz aldera jarraituko du.

**Ipuin kontalaria**

■ Apirilaren 3an, Miriam Mendoza ipuin  
kontalaria, 18:00etan, Kultur Etxean.

**Euskal Herriko Txirrindulari Itzulia**

- Apirilaren 5ean, hirugarren etapa,  
Gasteiz-Donostia. 16:35 inguruan irtsiko  
dira Aiara eta Oriotik pasako dira gero.
- Apirilaren 6ean, laugarren etapa, Do-  
nostia-Bilbo. 13:30 inguruan pasako dira  
Oriotik, N-634 errepidetik.

**Antzerkia**

■ Apirilaren 28an, *Bi izarren kalenturak*  
antzerkia Iñake Irastora eta Ane Gabar-  
rainen eskutik, 22:30ean Kultur Etxean.

**Kultur Etxeko ordutegia**

■ Apirilaren 10etik 21era Kultur Etxea  
goizez bakarrik zabalduko da, 9:00eta-  
tik 13:00etara.

**Traste zaharrak**

■ Apirilaren 12an eta 26an, traste zaha-  
rren bilketa. Aurrez Udaletxera deitu be-  
har da: 943830346.

## Aia

**Ibilaldia**

■ Apirilaren 1ean, Txori kantuak ezagu-  
tzeko ibilaldia Mikel Olanoren eskutik,  
10:00etan, Iturraran Parketxetik abiatu-  
ta. Adin guztietako herritarrei zuzen-  
dua. Izen-ematea 943-8353 89 telefono  
zenbakira deituta edo iturraran@gipuz-  
koamendizmendi.net helbidera idatzi-  
ta. Prezioa: 5 euro.

**Txakolin eguna**

■ Apirilaren 23an, Aiako XIV. Txakolin  
eguna.

**Landare berezien azoka**

■ Apirilaren 29an eta 30ean, XV. Landa-  
re Berezien azoka.

**Podologoa**

■ Apirilaren 29an podologoaren kon-  
sulta, sendagilearen etxean. Aurrez or-  
dua hartzeko: 943131144.

IKUSBERA ALDIZKARIA KARKARAREKIN



EGIN ZAITEZ LAGUNTZAILE

ETA JASO EZAZU ZUREA

# IKUSBERA

ika, ika, ika  
hemen dator korrika!



jolastu  
gurekin